



**IKUS-ENTZUNEZKO EUSKAL PRODUKZIO
INDEPENDENTEA BABESTEKO LANKIDETZA-
HITZARMENA**

honako hauek sinatu dute

EITB MEDIA SAU

**IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL EKOIZLE BURUJABEEN ELKARTEA
IBAIA**

**EUSKAL PRODUKTOREEN ELKARTEA
EPE / APV**

eta

**IKUSENTZUNEZKO PRODUKTOREEN ELKARTEA
APIKA**

(Handwritten signatures in blue ink)

Donostian, 2022ko ekainaren 15ean.

AURKIBIDEA

I. GLOSARIOA	3
1. HITZARMEN HAU APLIKATZEKO DEFINIZIOAK	7
2. XEDEA.....	10
3. ARAUBIDE JURIDIKOA.....	11
4. EITBREN AURRETIAZKO FINANTZAKETAREN KONPROMISOA	12
5. KOMUNIKAZIO PUBLIKOAREN ETA USTIAPENAREN ESKUBIDEAK LAGATZEA.....	13
6. BESTE ESKUBIDE BATZUK EMATEA ETA AITORTZEA.....	16
7. IKUS-ENTZUNEZKO LANEN PROIEKTUAK AURKEZTEKO ETA HAUTATZEKO PROZEDURA ETA BETEKIZUNAK.....	17
8. IKUS-ENTZUNEZKO LANEN AURREKONTU-ALDAKETAK.....	22
9. ORDAINTZEKO MODUA.....	24
10. PRODUKZIOAREN KUDEAKETA, KONTROLA ETA AUDITORETZA	25
11. EUSKAL PRODUKZIO-ETXE INDEPENDENTEEN BETEBEHARRAK.....	26
12. EZ BETETZEA. DIRUA ITZULTZEA.....	28
13. DATU PERTSONALEN BABESA	29
14. IRAUPENA ETA BERRIKUSPENA.....	30
15. JAKINARAZPENAK	30
16. JARRAIPEN BATZORDEA.....	31
17. MISZELANEA.....	31
18. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA.....	33

I. GLOSARIOA

VOD: Video on Demand

HbbTV: Hybrid Broadcast Broadband TV

NPVR: Network Personal Video Recorder

Reverse EPG: Reverse Electronic Program Guide

SVOD: Subscription Video on Demand

NVOD: Near Video-On-Demand

FVOD: Free Video on Demand

AVOD: Advertising-based Video on Demand

TVOD: Transactional Video on Demand

PVOD: Premium Video on Demand

MMDS: Multichannel Multipoint Distribution Service

IPTV: Internet Protocol Television

OTT: Over the top

PPV: Pay per view

Donostian, 2022ko ekainaren 15ean.

BILDU DIRA

Alde batetik,

Jon Andoni Aldekoa de la Torre jauna, adinez nagusia, Espainiako nazionalitatearekin, enpresaburua, ondorio hauetarako Bilbon (48013), Basurtuko Kaputxinoen kalea, 2an dauka helbidea eta 30618790V NAN zenbakia.

Beste alde batetik,

María Ángeles Fernández Pascal andrea, adinez nagusia, Espainiako nazionalitatearekin, enpresaburua, ondorio hauetarako Donostian, Juan Fermin Gilisagasti, 4, 3º 303 bulegoan (Zuatzu) dauka helbidea eta 33448506C NAN zenbakia.

Beste alde batetik,

Carlos Juárez Morejón jauna, adinez nagusia, Espainiako nazionalitatearekin, enpresaburua, ondorio hauetarako Bilbon (48006), Zumalakarregi Etorbidea, 48 behean dauka helbidea eta 30594031Y NAN zenbakia.

Eta, beste alde batetik,

María Teresa Ruiz de Austri Villán andrea, adinez nagusia, Espainiako nazionalitatearekin, enpresaburua, ondorio hauetarako Vitoria-Gasteizen (01012), Badaia kaleko, 2 - 2.Dn dauka helbidea eta 16250411Z NAN zenbakia.

PARTE HARTU DUTE

Jon Andoni Aldekoa de la Torre, zeinak EITB MEDIA, S.A.U. (aurrerantzean, "EITB") delakoaren izenean eta ordezkartzan jarduten duen, Espainiako nazionalitatea duen sozietatea. Sozietatea Bilbon dago, Basurtuko Kaputxinoen kaleko 2. zenbakian (48013), eta A-48139232 IFZ-zenbakia du. Gainera, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, 67 liburukian, 209 folioan, BI-5378 orrian, 96 inskripzioan.

Ordezkeri gisa jarduten du EITB Taldearen zuzendari nagusia izateagatik.

María Ángeles Fernández Pascal andrea, zeinak "IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL EKOIZLE BURUJABEEN ELKARTEA" (aurrerantzean, "IBAIA") delakoaren izenean eta ordezkartzan jarduten duen, Espainiako nortasuna duen elkarte. Elkarte Donostiako Juan Fermin Gilisagastik kaleko 4. zenbakiko 3. solairuan dago, 303

bulegoan (Zuatzu –20018), eta G20109245 IFK-zenbakia du. Gainera, izena emanda du Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean.

Ordezkarri gisa jarduten du IBAIAren presidentea izateagatik.

Carlos Juárez Morejón jauna, zeinak “EUSKAL PRODUKTOREEN ELKARTEA” (aurrerantzean, “EPE/APV”) delakoaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duen, Espainiako nortasuna duen elkarte. Elkarte Bilboko Zumalakarregi etorbideko 48. zenbakiko beheko solairuan dago (48007), eta G-95339750 IFK-zenbakia du. Gainera, izena emanda du Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean.

Ordezkarri gisa jarduten du EPE/APVren presidentea izateagatik.

María Teresa Ruiz de Austri Villán andrea, zeinak “ARABAKO IKUSENTZUNEZKO PRODUKTOREEN ELKARTEA” (aurrerantzean, “APIKA”) delakoaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duen, Espainiako nortasuna duen elkarte. Elkarteak Gasteizko Badaia kaleko 2, 2.Dn dauka helbidea (01012), eta G01500503 IFK-zenbakia du. Gainera, izena emanda du Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean.

Ordezkarri gisa jarduten du APIKAren presidentea izateagatik.

Aurrerantzean eta dokumentu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, EITB, IBAIA, EPE/APV eta APIKA banan-banan izendatuko dira “Aldea” izenarekin edo denak batera “Aldeak” izenarekin.

Aldeek, bakoitzak parte hartzen dueneko izaeratik, lege-gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri **IKUS-ENTZUNEZKO EUSKAL PRODUKZIO INDEPENDENTEA BABESTEKO LANKIDETZA-HITZARMEN HAU** (aurrerantzean, “Hitzarmena”) gauzatzeko, eta, horrenbestez hauxe

ADIERAZI DUTE

- I. 2005. urtetik eta zenbait hitzarmenen ondorioz, EITBk euskal produktore independenteen elkarte batzuekin egiten du lan Euskadin ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko, garatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko, Telebista-operadoreen emisio-betebeharrak eta film luze eta film labur zinematografikoak eta telebistarako filmak aurrez finantzatzeko inbertsio-betebeharrak ezartzen dituen azaroaren 27ko 215/2007 DEKRETUAN (“215/2007 Dekretuan”), Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Legean (“7/2010 Legea”) eta aplikatu beharreko gainerako nazioarteko zein estatuko gainerako legerian xedatutakoarekin bat etorriz.

- II. Aldeek ondo dakite Europako ikus-entzunezko sektoreak, orokorrean, eta ikus-entzunezko kontsumoak, bereziki, modu esanguratsuan eboluzionatu dutela azken urteetan, bai ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzuak emateari dagokionez, bai ezagutzera emateko plataforma eta bitartekoei zein publikoak ikus-entzunezko produkzioak eskuratzeko aukerari dagokienez.
- III. Dagoeneko ez daude indarrean Ikus-entzunezko Euskal Produzio Independentea babesteko EITB, IBAIA eta EPE/APV direlakoek 2008ko martxoaren 12an sinatutako lankidetzaz-hitzarmena eta 2008ko urriaren 28ko, 2012ko irailaren 27ko, 2013ko abenduaren 20ko, 2015eko apirilaren 16ko eta 2019ko apirilaren 26ko gehigarriak, eta Aldeek interesa dute horretarako EITBren lankidetzaz arautuko duten beste oinarri batzuk hitzartzeko, gaur egungo ikus-entzunezko nazioarteko merkatuaren egoeraren arabera eguneratutako esparru juridiko bat ezartzeko, zeinak ikus-entzunezko euskal produkzioen finantzaketan EITBren lankidetzaren emaitzen eraginkortasuna eta orientazioa handitzeko baldintzak zehaztuko dituen eta ikus-entzunezko merkatuaren bilakaera islatuko duen, betiere, ikus-entzunezko euskal produkzioaren sustapenaren eta hedapenaren eta estatuko eta nazioarteko garrantziaren eta lehiakortasunaren hazkundearen arteko oreka lortzeko.
- IV. Aldeek asmo irmoa dute ikus-entzunezko euskal sektorean emakume profesionalen parte-hartzea sustatzen jarraituko duten neurriak adosteko, ikus-entzunezko lanak produzitzeko, sortzeko eta garatzeko enpresari zein sormenari lotutako erabakiak hartzeko uneetan emakume gehiago egotea lortzeko, berdintasunik eza desagerrarazteko, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko eta emakumeek bultzatutako ikus-entzunezko proiektuak sustatzeko eta ugaritzeko helburuari arreta berezia jarritz.
- V. Era berean, Alde guztiak bat datoz, eta euskal kultura-ondarea babesteko, sustatzeko, bultzatzeko eta ezagutzera emateko konpromisoa berresteko eta azpimarratzeko garrantzia nabarmentzen dute, bai eta ikus-entzunezko sektorean euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzeko premia ere. Hori horrela, mota guztietako ikus-entzunezko plataformetan euskarazko ikus-entzunezko edukien kontsumoaren hazkunde iraunkorraren eta hedapenaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dute, eta, bereziki, plataforma digital berriei dagokienez.
- VI. Aurrekoaren ondorioetarako, Aldeek uste dute ueña iritsi dela EITBk Hitzarmen hau sinatu duten euskal produktore independenteekin duen lankidetzaz egokitzeko, antolatzeke eta eguneratzeko, betiere, bertan jasotako baldintzekin bat etorritz.

VII. Aurreko guztia aintzat hartuta eta Aldeak hitzarmen hau sinatzearekin ados daudenez, honako klausulen arabera gauzatzen dute.

KLAUSULAK

1. HITZARMEN HAU APLIKATZEKO DEFINIZIOAK

Beren-beregi jaso da letra larriz agertzen diren terminoak ondoan ageri den definizioaren arabera ulertuko direla (terminoa singularrean edo pluralean egon arren).

A) Europako Lanak: Hauexek izango dira Europako Lanak:

- (i) Estatu kideen jatorrizko ikus-entzunezko lanak, eta Europako beste estatu batzuen ikus-entzunezko lanak, baldin eta Europako Kontseiluaren Mugaz bestaldeko Telebistari buruzko Europako Hitzarmenaren barruan baldin badaude, betiere, Estatu kideen lanek ez badute diskriminazio-neurririk jasan behar dagokion beste herrialde horretan.

Jatorrizko lana izango da, funtsean, aurreko paragrafoan aipatutako Estatu kideetako batean edo baten baino gehiagotan bizi diren egileen eta langileen parte-hartzea duten lanak, betiere, baldin eta, horrez gain, honako hiru baldintza hauek betetzen badituzte: aipatutako Estatu batean edo gehiagotan ezarritako produktore batek edo gehiagok egindako lanak izatea; lan horien produkzioak Estatu horietako batean edo batzuetan ezarritako produktore batek edo batzuek berrikustea eta benetan kontrolatzea; Estatu horien koproduktoreen ekarpenak koprodukzioaren kostu osoaren zatirik handiena hartzea, eta Estatu horietatik kanpo ezarritako produktore batek edo batzuek ez kontrolatzea.

- (ii) Europar Batasunaren eta beste herri batzuen artean hitzartutako ikus-entzunezko sektoreari buruzko hitzarmenen esparruan koproduzitutako lanak, hitzarmenetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, betiere, Estatu kideen lanek ez badute diskriminazio-neurririk jasan behar dagokion beste herrialde horretan.

- (iii) a) apartatuaren arabera Europakoak ez diren lanak, baldin eta Estatu kideen eta beste herrialde batzuen arteko bi aldeko koprodukzio-itunen esparruan produzitu badira, betiere, Batasuneko koproduktoreen ekarpenak koprodukzioaren kostu osoaren zati handiena hartzen badu eta produkzioa Estatu kideen lurraldetik kanpo ezarritako produktore batek edo batzuek kontrolatzen ez badute.

mf

7

- B) **Film Zinematografikoa:** Edozein bitarteko edo euskarritan finkatutako Europako Lan oro, egikaritze-prozesuan sortzeko, produzitzeko, muntatzeko eta postproduzitzeko eginkizunak gertzen badira eta, hasiera batean, ustiatze komertzialerako erabiltzen bada zinema aretoetan. Definizio horretatik kanpo geratuko dira edozein motatako gertakari edo emankizun hutsak.
- C) **Ikus-entzunezko Lana:** unean-unean indarrean dagoen aplikatu beharreko legerian xedatutako ikus-entzunezko edozein lan, betiere, Europako Obra izateko eskakizunak betetzen baditu.
- D) **Errealizadore Berria:** Zinema-aretoetako ustiapen komertzialerako kalifikazioa lortu duten bi film luze baino gehiago zuzendu edo zuzentzen lagundu ez duena.
- E) **Sortzaileak:** Honako hauek izango dira Ikus-entzunezko Lan baten Sortzaileak:
- Egileak, hau da, zuzendaria, gidoilaria, argazki-zuzendaria eta musikaren konpositorea.
 - Lanean parte hartzen duten aktoreak eta beste artista batzuk.
 - Teknikari lanak egiten dituzten sortzaileak: muntaketa-taldeko burua, zuzendari artistikoa, soinu-burua, figuringilea eta karakterizazioko burua.
- F) **Jatorrizko Bertsioa Euskaraz:** Benetako irudiak dituzten Ikus-entzunezko Lanak, non aktoreek elkarrizketak euskaraz interpretatzen dituzten. Irudi errealeko fikzioaren kasuan, EITBren ekarpenei dagokienez, lanaren jatorrizko bertsioa euskaraz dela joko da baldin eta filmeko elkarrizketen % 70 baino gehiago euskaraz egiten bada eta, horrenbestez, ez dira euskarazko jatorrizko bertsioak izango lan mutuak edo ia mutuak, elkarrizketarik gabekoak edo musika-banda euskaraz baino ez dutenak. Irudi errealean kasuan zein animazioen kasuan, gidoilariak gidoia euskaraz idatzi behar du hasiera-hasieratik, eta gidoilari bat baino gehiago baldin badaude, haietako batek izan behar du, gutxienez, euskarazko bertsioaren egilea, ahal dela lanaren titulartasun-ehunekorik handiena duena.
- G) **Euskal Produkzio-etxe Independentea:** Gutxienez bi urtez indarrean egon den egoitza soziala eta egoitza fiskala Euskadin dituen pertsona juridikoa, eta ezin izango da ikus-entzunezko hedapen- edo komunikazio- zerbitzuak ematen dituenaren edo telebista-kanal pribatuaren titular baten enpresa-estrategiari modu egonkorrean lotuta egon, ez eta eragin gehien duena izan ere. Modu egonkorrean lotuta daudela usteko da, baldin eta sozietateen talde bereko kide

badira, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera, edo aldeek beste batzuk kontratatzeke duten autonomia mugatzeko hitzarmenak baldin badaude, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 2.22 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta arrazoia edozein izanda ere, nola edo hala, dagozkien administrazio- edo kudeaketa-organoen erabakiak baldintzatu ditzaketenean, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Pertsona juridikoen kasuan, objektu sozialak, beste jarduera batzuen artean, barne hartu behar ditu Ikus-entzunezko Lanak garatzea eta produzitzea.

Era berean, euskal produkzio-etxe independentetzat joko dira helbidea gutxienez bi urtez Euskadin indarrean izan duten pertsona fisikoak, baldin eta film laburrak eta dokumentalak produzitzen badituzte, betiere, EITBk lan horiei egiten dien ekarpena 10.000 euro baino txikiagoa denean.

- H) G ataleko eskakizunak betetzen dituen Euskal Produkzio-etxe Independentete bat (pertsona juridikoa) **Ekonomia Intereseke Talde (EIT)** baten kapital sozialaren zati baten titularra denean eta, gainera, bertan administratzaile bakarraren edo administratzaile mankomunatuaren kargua duenean, horiek ere Euskal Produkzio-etxe Independentetzat joko dira Hitzarmen honen ondorioetarako, gutxienez, indarren bi urtez egon ez den kasuetan. EITaren administratzaile mankomunatuaren kasuan, Euskal Produkzio-etxe Independenteteak (pertsona juridikoa) derrigorrez esku hartu beharko du EITaren operazio guztiak gauzatzeko, eta ez badu esku hartzerik egiten, ezin izango da operazio edo transakziorik formalizatu.

Euskal Produkzio-etxe Independentete batek duen titulartasuna mantentzeari buruzko I. eranskineko 1.1.a, 2.1.a, 3.1.a, 4.1.a eta 5.1.a klausuletan jasotakoaren ondorioetarako, kontratua EIT batekin sinatzen denean, lagatzeko edo atzera egiteko nahitaezko hitzarmenak formalizatu beharko dituzte EITek eta Produkzio-etxeek. Horien bitartez, hain zuzen ere, Euskal Produkzio-etxe Independentetearen (pertsona juridikoa) ikus-entzunezko lanaren eskubideen titulartasuna beste hiru (3) urtez bermatuko da kalifikazioa egin ondorengo lehenengo hiru (3) urteen ostean. Aipatutako lagatzeko edo atzera egiteko itunari dagokionez, eskritura publikoa egin beharko da Merkataritza Erregistroan eta kalifikazioaren dataren aurretik. Hori horrela, eskubideak 6 urtez mantentzeko betebeharra beteko da.

- I) **Aurretiatzko Finantzaketa:** EITBekin egiten den kontratuaren bitartez konprometitzen eta gauzaten dena, zeinak, Hitzarmen honetan jasotako baldintzak eta eskakizunak eta dagozkion proiektuak aurkezteko oinarrietan

MF





zehaztutakoak bete ondoren, Euskal Produkzio-etxe Independenteari Hitzarmen honetan jasotako ekarpenak eskuratzeko aukera emango dion produkzio-faseak iraun bitartean eta, edonola ere, Ikus-entzunezko Lanaren kalifikazio egin eta sei (6) hilabete igaro baino lehen (aurrerantzean, "EITBrekin sinatutako Kontratua").

Salbuespen gisa, produkzio-faseak iraun bitartean lanek uztailearen 12ko 25/1994 Legearen 5.1. artikuluan xedatutako finantzaketa jaso ez badute, dagoeneko amaituta dauden lanak ustiatzeko eskubideak produkzio-etxeari edo banatzaileari zuzenean erosteko aukera hartuko da aintzat, betiere, erosketa hori, gehienez ere, filmaren kalifikazioa egin eta sei hilabete geroago egiten bada.

2. XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da EITBk Euskal Produkzio-etxe Independenteei Euskal Produkzio Independentetarako laguntza emateko terminoak eta baldintzak ezartzea. Hain zuzen ere, honako helburu hauek lortu nahi dira, besteak beste:

- EITBren lankidetzaren finkatzea zenbait Euskal Produkzio Independente finantzatzeko orduan, horretarako Aurretiazko Finantzaketa emanez.
- Kalitate oneko ikus-entzunezko euskal produkzio bat sustatzea eta garatzea, aldi berean egonkorra eta berritzailea ere badena, eta joera eta formatu berriak babestuz.
- Ikus-entzunezko euskal sektorearen lehiakortasuna handitzea eta ikus-entzunezko lanak produzitzeko eta ezagutzera emateko hedabide berriak egokitzen laguntzea.
- Genero-berdintasuna bultzatzea Ikus-entzunezko Lanak sortzeko, garatzeko eta produzitzeko orduan, eta emakumeek sustatzen dituzten ikus-entzunezko proiektuen garapenaren alde lan egitea.
- Nazioartean garrantzi handia izango duten Ikus-entzunezko Lanen garapena sustatzea, bai eta nazioarteko koproduzioak ere.
- Oro har Euskal Produkzio Independenteen kontsumoa handitzea, bai eta Jatorriz Euskarazkoak diren Bertsioenak ere plataforma digitalen bitartez.
- Ikus-entzunezko Euskal Sektoreko eragile guztien babesa sendotzea Ikus-entzunezko Lanetan Euskararen erabilera sustatzeko, zabaltzeko, defendatzeko, normalizatzeko eta egonkortzeko.
- Euskal errealizadore berriei babesa ematea.
- Euskal Sortzaileek Euskal Produkzio Independentetean parte hartzea bultzatzea.
- Euskadin Euskal Produkzio Independentetarako grabatzeko, filmatzeko, eta kostua lokalizatzeko kostuarekin laguntza ematea.

- Lehentasuna ematea euskal kultura eta euskara nazioartean sustatzeari.
- Produkzio Zinematografiko jasagarri bat lortzeko jardunbide egokiak sustatzen laguntzea.

Horretarako, eta proiektu egokiak aurkezteko unean-unean argitaratzen diren oinarriak betetzen dituztela egiaztatzen duten ikus-entzunezko proiektuen kopuru zehaztugabe bat hautatu ondoren, EITBk Aurretiazko Finantzaketarekin lagunduko die proiektu horien kostua ordaintzeko. Trukean proiektuaren Ikus-entzunezko Lanari dagozkion ustiapen-eskubide batzuk jasoko ditu, Hitzarmen honetan xedatutako alderdi eta baldintzetan.

Aldeek ahalik eta ahalegin gehien egin behar dute, eta beharrezkoak diren baliabide guztiak eman, Hitzarmen honen alderdiak eta baldintzak ondo burutu daitezzen, bai eta fede onez jardun ere, Hitzarmen honetan edo Hitzarmenaren helburuan aintzat hartutako jarduerak hobetzea sustatuz.

3. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen hau merkataritza-hitzarmen bat da, eta honako hauetan jasotakoari jarraikiz bete behar da: 215/2007 Dekretua, 7/2010 Legea eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 Zuzentaraua (EB), zeinaren bitartez 2010/13/EB Zuzentaraua aldatzen den (Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen zuzentaraua), bai eta estatuan zein nazioartean aplikatu beharreko gainerako legeria ere.

Aldeen arteko harremana merkataritza-harreman hutsa izango da, eta ez da bestelako lan-loturarik existituko aldeen artean. Hitzarmen honetan jaso diren Aldeen arteko harremanak elkarrekiko eta hirugarrenetikiko independenteak diren pertsona juridikoen arteko harremanak izango dira; horrenbestez, ezin izango da inolaz ere interpretatu horietako batek, bertako langileek, laguntzaileek edo bazkideek bestearen ordezkari, eragile, agintari edo faktore gisa jardun ahal izango duenik, eta horren egintzek edo ez-egiteek ezin izango diote edozein motatako loturarik sortu beste Aldeari hirugarrenetikiko betebeharrak eduki ditzan. Era berean, Hitzarmen hau betetzeak edo burutzeak ez dute esan nahi eta ez dute ulertarazi nahi Aldeen artean elkarketatik edo arrisku eta menturako harremanik dagoenik.

MF

4. EITBREN AURRETIAZKO FINANTZAKETAREN KONPROMISOA

Indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorritik, EITBk urtero-urtero egingo du Ikus-entzunezko Lanetarako Aurretiazko Finantzaketarako ekarpena, unean-unean legez edo arauz zehazten den moduan eta zenbatekoa kontuan hartuz, eta ekarpena zuenean egin ahal izango du Ikus-entzunezko Lanen produkzioan zuzenean parte hartuz (vid. 988/2015 Errege Dekretuaren 5.2. artikulua) edo horiek ustiatzeko zenbait eskubide eskuratuz. Horrenbestez, EITBk urtero-urtero finantzatuko du Ikus-entzunezko Lanen proiektuen kopuru zehaztugabe bat, zeinak jarraian jasotako 7. klausulan xedatutako betekizunekin bat etorritik hautatuko diren.

Bestalde, EITBk adierazi du asmo irmoa duela, unean-unean gertatzen diren inguruabarren arabera aukera duenean, Ikus-entzunezko Lanetarako Film Zinematografikoen produkzioa babesteko, baldin eta emakumeek baino ez badute parte hartzen zuzendaritzan edo honako lanpostu hauetan: produkzio eragilean eta gidoiaren idazketan aldi berean. Produktore eragilearen kasuan, titulartasuna eduki beharko dute enpresan eta, gainera, kredituetan agertu. Proiektua aurkezten den unean lanpostuaren titularren interes-gutunak eskatuko dira.

EITBk interes-gutunen % 40 bideratuko du proiektu horietara.

Hitzarmen honetako 1-Eranskinean zehaztu dira Ikus-entzunezko Lan-mota bakoitzerako EITBk Aurretiazko Finantzaketaren zein kopuru emango duen zehazteko parametroak, eta horretara konprometituko da EITB.

Bestalde, EITBk Aurretiazko Finantzaketaren zenbatekoa handituko du Ikus-entzunezko Lanek aldagai batzuk betetzen dituztenean eta Hitzarmen honetako 1. eta 2. eranskinetan Ikus-entzunezko Lan-mota bakoitzerako ezarri diren zenbatekoen arabera.

Aurretiazko Finantzaketaren osagarri gisa eta film luzei dagokienez soilik, film bat Euskadiko zinema-aretoetan estreinatzearekin batera EITBk Ikus-entzunezko Lanen publizitatea egingo du bere ikus-entzunezko hedabideetan eta kanaletan. 1-Eranskinean jaso dira publizitate horren balioa eta baldintzak.

Amaitzeko, eta unean-unean hautatzen diren Ikus-entzunezko Lanen proiektuei dagokionez, EITBk konpromisoa hartzen du interes-gutun bat emateko finantzaketa gehigarria lortzeko edo dagokion Ikus-entzunezko lanaren produkzioarekin edo banaketarekin zerikusia duten beste kontratu batzuk sinatzeko negoziazioa errazagoa izan dadin (aurrerantzean, "**Interes-gutuna**").

5. KOMUNIKAZIO PUBLIKOAREN ETA USTIAPENAREN ESKUBIDEAK LAGATZEA.

Aurretzako Finantzaketaren ordain gisa, produzitzeko eta ustiatzeko eskubideen titularrak diren Euskal Produkzio-etxe Independentetek Aurretzako Finantzaketa jaso duten Ikus-entzunezko Lan guztien eskubide guztiak edo eskubide batzuk lagako dizkiote EITBri, EITBekin sinatutako Kontratuaren arabera, eta, edonola ere, Hitzarmen honetako 1-Eranskinean jasotako eskubideak lagatzeko irismenarekin bat etorritik.

Nazioarteko koproduzioen kasuan, Ikus-entzunezko Lanen eskubideak EITBren alde lagatzeko irismena kalkulatzeko, Ikus-entzunezko Lanean dauden estatuko produktore edo koproduktoreen parte-hartzeari dagokion ehunekoa hartuko da aintzat.

Jasota geratzen da EITBk askatasun osoz erabaki ahal izango duela Ikus-entzunezko Lana emititzen duen edo ez jarraian deskribatzen diren eskubide guztiak edo batzuek eskuratu ondoren. Edonola ere, EITBk askatasun osoz erabaki ahal izango du zein ordutan eta zein egunetan eskaini eskubidez dagokion emanaldi bakoitza.

5.1. Komunikazio Publikoaren eskubideak.

5.1.1. Telebista-sistemaren bitartez zabaltzeko eskubidea lurreko telebista digitalean: kasuaren arabera, EITBri lagako zaio erreproduzitzeko eta komunikazio publikoa egiteko eskubidea, gaztelaniaz modu eksklusiboan edo ez, eta denboraldi zehatz batean zehar, eta euskaraz modu eksklusiboan eta mugarik gabe emitituz, lurreko telebista digitalaren eremu geografikorako, uhinen bitartez edo kable bidez, satelitez edo lurreko sarearen bitartez, sistema analogikoan edo digitalean, bai bereizmen estandarrean bai bereizmen handian (HD) edo ordezkatzen duen beste edozeinetan, eta, orokorrean, ustiatu daitekeen beste edozein telebista-modalitatearen bidez, bai irekian emititzeko, bai baldintzatutako sarbiderako, emisioa lineala dela kable, satelite, IPTV, MMS edo Internet bidez.

Era berean, EITBri lagako zaio, modu ez eksklusiboan eta Espainiako lurralderako geolokalizatuta, Internet bidezko komunikazio publikoaren eskubideak, bai lurreko TBaren emisioarekin batera egiten bada, bai www.eitb.eus webgunearen bitartez edo etorkizunean titular den beste edozein webguneren bitartez zabaltzen diren programetako baten zati bada, betiere, emanaldia egin eta egutegiko hurrengo hamabost (15) egunetan zehar egiten bada. Erabiltzaileek/Internautek lana deskargatzea ekiditeko, horretarako beharrezkoak diren neurri teknologiko guztiak hartuko ditu EITBk, sektorearen estandarrekin bat etorritik.

5.1.2. EITBren nazioarteko kanalen bitartez zabaltzeko eskubideari dagokionez, komunikazio publikoko eta erreprodukzioko eskubide hauek lagako dira:

a.- Beste telebista-operadorearen batek parte hartuko balu, EITBk eskubide parekarriak izango lituzke.

b.- Beste operadorearen batek parte hartzen ez badu, lurreko telebista digitalarekiko leioa atzeratuko litzateke filmaren ustiapena errazteko eta EITBk filmaren 4 emankizun baino ezin izango ditu egin gaztelaniaz eta mugarik gabeko emankizunak euskaraz.

Aurreko kasuetako eskubideak beste batzuei lagatzeko aukerari dagokionez, modu ez esklusiboan egingo da eta EITBren seinalea aldaketarik gabe eta modu globalean zabaltzen duten plataforma edo operadorearen alde egindako lagapenera mugatuko da. Lagatzeari dagokionez, ezagutzen diren zabaltze-sistema guztiak barne hartzen ditu (kablea, satelitea, hari, zuntz optikoa eta abar), horrela edukiak eskuragarriagoak izango dira edozein gailu elektronikotatik.

Salbuespen gisa, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua baimenduko da EITBren seinale globala zabaltzen duten plataforma edo sareek hala eskatzen dutenean, eta eduki horiek eskuragarri egon ahal izango dira *catch up* delakoaren bitartez aipatutako sareek edo plataformek jarduten duten lurraldeetan, aipatutako nazioarteko kanaletako lineako emankizuna egin eta hurrengo 15 egunetan.

- 5.1.3. Internet bidez zabaltzeko eskubidea: kasuaren arabera eta hirugarrenen ekarpenaren zenbatekoak kontuan hartuta, EITBri lagako zaizkio gaztelaniazko jatorrizko bertsioaren erreprodukzioaren eta komunikazio publikoaren eskubideak, modu esklusiboan edo ez, eta euskarazko jatorrizko bertsioarenak, modu esklusiboan, edo euskarara bikoiztutako bertsioarenak — bereziki, hari bidezko edo haririk gabeko prozeduren bidez eskuragarri jartzen direnak—, hari, kable, zuntz optiko edo antzeko beste edozein teknologiaren bitartez, zeinak transmititzeko eta ondoren gailu elektronikoetan hartzeko aukera emango duen, bai emankizunaren aldi berean egiten den *streaming* bidez, TB linealaren bidez edo eskatutako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu baten barruan badago (*catch-up* ed eskatutako bideoa (VOD), HbbTV, grabaketa zentralizatua (NPVR), Reverse EPG, SVOD, NVOD, FVOD, AVOD, TVOD, PVOD eta abar).

Euskarazko bertsioen esklusibotasunari dagokionez, lanaren finantzaketa errazteko asmoz, salbuespen gisa eta beste batzuen ekarpenen arabera, betiere bien komunikazio-eskubideekin orekatuta badaude eta bateragarriak badira, EITBk salmenten banaketa adostu ahal izango du. Horretarako, konpromisoa

hartzen du, bai hitzarmen zehatzak bilatzeko, egoera horretan dauden produkzioei dagokienez, bai hirugarrenekin egiten diren esparru orokorreko hitzarmen globalak bilatzeko, ikus-entzunezko euskal produkzioari laguntzeko asmoz.

- 5.1.4. Aurreko guztiari kalterik egin barik, Euskal Produkzio-etxe Independentetek ezin izango dituzte Ikus-entzunezko Lanaren banaketa-eskubideak laga etxeko erabilera egiteko, ustiapena eguneko, asteko eta hilabeteko argitalpenei lotuta dagoenean, edo literatura-bildumei zein bilduma bideografikoei lotuta dagoenean (operazio bereziak orokorrean, kioskoan, liburu-dendan edo beste edozein banaketa-sisteman), EITBk Ikus-entzunezko Lanaren lehenengo emankizuna egin arte aurreko ataletan adierazitako edozein bitarteko edo euskarritan edo komunikazio publikoaren eskubideen lagapen-aldiaren iraupenaren lehenengo sei (6) hilabeteak igaro arte, lehenago gertatzen dena.

Produktoreak aurretik eskatuta, eta salbuespen gisa, EITBk egoki DERITZEN inguruabarrak gertatzen badira, aukera egongo da produkzio-etxeak aipatutako ustiapen-mota gauzatzea baimentzeko.

Euskal Produkzio-etxe Independentek debeku hori betetzen ez badu, EITBk baimendu gabeko lagapen horren bidez lortutako diru-sarrera guztiak eskatu ahal izango dizkio.

- 5.2. Komunikazio Publikoko Eskubideak Lagatzeko aldiaren iraupena.

Komunikazio eskubideak lagatzeko iraupena, aurreko ataletan adierazitako termino eta baldintzetan, hamar (10) urtekoa izango da. Iraupen-aldi horren hasiera EITBk eta EITBekin Kontratua sinatu duen Euskal Produkzio-etxe Independentek adosten duten datan hasiko da.

- 5.3. Ustiapen-eskubideak.

- 5.3.1. Aurresalmenten, laguntza publikoen, koprodukzioen, merchandising-kontratuen, inbertsiogile pribatuen, kapitalizazioen eta abarren bidezko lanen finantzaketa osatu ondoren, EITBk eskubidea izango du lana ustiatzearen ondorioz sortzen diren diru-sarrera garbien ehuneko bat jasotzeko.

Ehuneko hori kalkulatzeko, lanaren aurrekontuaren kontra EITBk egindako aurretiazko finantzaketaren ekarpena hartuko da kontuan.

Nazioarteko koprodukzioen kasuan, atzerriko koproduktoreak bere gain hartutako aurrekontuaren zatia kontuan hartu gabe kalkulatu da ehuneko.

Aipatutako diru-sarrera garbier barruan daude Ikus-entzunezko Lanaren edozein ustiapenetatik edozein modalitatetan sortutakoak, non besteak beste dauden, adibide gisa eta ez zerrenda itxi gisa, areto komertzialak, etxeko banaketa edozein motatako formatuetan, Internet eta beste edozein formatu interaktiboa, ez lineala edo OTT, telebistan edozein motatako ustiapen-modalitatetan edo seinalea bidaltzeko sistema, zirkuitu itxietako edukien edozein plataforma barne hartuta, eskatuta sartzeko izan zein ez, eta adierazpen gisa baino ez, catch-up edo eskatutako bideoa (VOD), HbbTV, grabazio zentralizatua (NPVR), Reverse EPG, SVOD, NVOD, FVOD, AVOD, TVOD, PVOD eta abar, eta orokorrean Ikus-entzunezko Lanaren zuzeneko edo zeharkako edozein motatako ustiapenak.

5.4. Beste Ustiapen-eskubide batzuen lagapenaren iraupena.

Aurreko 5.3. klausulan aipatutako Ustiapen-eskubideen lagapenaren iraupenari dagokionez, Jabetza Intelektualari buruzko legearen testu bategina onesten duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak baimendutako gehieneko denbora hartuko da kontuan, gaiaren inguruan indarrean dauden lege-xedapenak araututa, argituta eta harmonizatuta.

Hala eta guztiz ere, filma kalifikatzen denetik 10 urte igarotzen badira eta EITBk ustiapenaren diru-sarrera gisa gutxienez eskubide horrek eman dion ekarpenaren % 50 jaso ez badu edo azken hiru urteetan salmentarik egin ez bada, EITBk ustiapen-eskubideei uko egin ahal izango die, eta, horren ordez, lanaren komunikazio-eskubide mugabeak lortuko ditu.

6. BESTE ESKUBIDE BATZUK EMATEA ETA AITORTZEA.

Aurreko 5. klausulan aipatutako ustiapen-eskubideen osagarri eta gehigarri gisa, produktorako eta ustiapenerako eskubideen titularrak diren Euskal Produkzio-etxe Independentetek EITBri jarraian jasotako eskubideak aitortu eta emango dizkiote EITBrekin sinatutako Kontratuaren arabera hautatutako Ikus-entzunezko Lanari dagokienez.

6.1. Lehentasuneko eskubidea Ikus-entzunezko Lana zabaltzeko eskubideak, iraupen mugabearekin edo aldi baterako eta modu eskusiboan edo ez, eskuratzeko hari bidezko edo haririk gabeko edozein prozeduren bitartez, sistema digital eta elektronikoen bitartez, interaktiboak izan zein izan ez, edozein ustiapen-modalitatetan edo seinalea bidaltzeko sistematan, zirkuitu itxietako edukien edozein plataforma edo formatu berri barne hartuta, eskatuta sartzekoak izan zein ez izan, eta nahiz eta gaur egun ez existitu, ezagutu edo ustiatu Hitzarmen hau sinatu ondoren existitu edo

ustiatu badaiteke ikus-entzunezko lanak ikusgai jartzeko, estreinatzeko eta, edonola ere, zabaltzeko.

6.2. Hautatutako Ikus-entzunezko Lana ikusgai jarri edo estreinatu aurretik ikusteko aukera.

6.3. Sekuelen eta hautatutako Ikus-entzunezko Lanetik sortzen diren gainerako lanen finantzaketan parte hartu ahal izateko tanteo-eskubidea. EITBk tanteo-eskubidea izango du hautatutako Ikus-entzunezko Lanetik sortzen diren gainerako lanen edo sekuelen produkzioan edo finantzaketan parte hartzeko beste edozeinek eskaini dituen baldintzak berdintzeko.

7. IKUS-ENTZUNEZKO LANEN PROIEKTUAK AURKEZTEKO ETA HAUTATZEKO PROZEDURA ETA BETEKIZUNAK

7.1. Hitzarmenean jaso diren Ikus-entzunezko Lanen betekizunak.

Aldeek erabaki dute Hitzarmen honetan jasotako EITBren ekarpenak eskuratzeko aukera duten proiektuak aurkezteko asmoa duten Euskal Produkzio-etxe Independentetek honako betekizun hauek betetzen dituzten Ikus-entzunezko Lanen proiektuak baino ezin izango dituztela aurkeztu:

- Euskal Produkzio-etxe Independente eskatzailea Ikus-entzunezko Lanaren titularra eta horren ustiapen-eskubide guztiena ere bai, bai eta industria-jabetzako eskubideena ere, beste batzuei lagatzeko berariazko eskumenarekin. Ikus-entzunezko Lanaren produkzioan kotitulartasuna dagoen kasuetan, eskatzaileak, gutxienez, Lan mota bakoitzerako 1-Eranskinean adierazi den Ikus-entzunezko Lanaren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen ehunekoia eduki beharko du, eta gutxienera titulartasun-ehuneko horri eutsi beharko dio, gutxienez, sei (6) urteko epean, Lanaren kalifikazio egiten den unetik aurrera zenbatzen hasita. Ikus-entzunezko lanaren titulartasunaren ehunekoia agerian eta modu proportzionalan lotuta egongo da Euskal Produkzio-etxe Independentetek Lan horren ustiapenaren ondoriozko diru-sarreretan edukiko duen ehunekoarekin.
- Era berean, aurrekontuan bertan jasota egon beharko duten publizitate- eta promozio-gastuek Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren edo Eusko Jaurlaritzaren araudian ezarritakoa bete beharko dute, laguntzak jaso badituzte, eta egoera horretan egon ezean, gutxienez, errealizazioaren kostuaren % 5.
- Ez da Ordaindu gabeko Onarpenen Erregistroan jasota egon behar.

- EITBrekin sinatutako eskubideen produkzio, finantzaketa edo lagapeneko aurreko hitzarmenetatik sortutako betebeharririk hautsi ez izana oinarriak argitaratu aurreko azken lau (4) urteetan.

EITBren jarduera arautzen duten printzipioekin bat etorriz, bai eta Europa Sortzailea Programa (2021-2027) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko maiatzaren 20ko 2021/818 (EB) Erregelamendua aplikatzean Hezkuntza eta Kulturako Europako Agentziak egindako proposamenekin ere, Aldeak honako honekin datoz bat: EITBren etika- eta enpresa-printzipioen, lerro editorialaren, aplikatu beharreko estatuko zein nazioarteko araudiaren edo nazioartean onartutako sektoreko kodeen aurkako gai edo edukiak dituzten ikus-entzunezko lanen kasuan, ezin izango dituzte Hitzarmenean jasotako EITBren ekarpenak jaso, ez eta horretarako eskaerak aurkeztu ere.

7.2. Ikus-entzunezko Lanen proiektuak aurkezteko prozedura.

EITBk argitaratuak ditu Hitzarmen honetan aurreikusitako ekarpenak jasotzeko aukera duten proiektuak aurkezteko (aurrerantzean, **“Aurkezteko Prozedura”**) oinarriak.

Aurkezteko Prozeduraren oinarriak publizitatearen, gardentasunaren, lehia askearen eta objektibitatearen printzipioei jarraikiz idatzi eta argitaratuko dira, eta eskuragarri egongo dira dagokion plataforma elektronikoaren bitartez, Ikus-entzunezko Lanen proiektuak aurkezteko deialdia egin ostean.

Aurkezteko Prozeduraren bidez aurkezturiko eskaera guztiek aurreko klausulan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Ez da onartuko eskaerak Aurkezteko Prozeduran ezartzen ez diren bitartekoen bidez aurkeztea. Plataformak Aurkezteko Prozeduran eta horren oinarrietan eskatzen denaren arabera izapidetzen diren eskaerak bakarrik baliozkotu eta, hortaz, onartuko ditu. Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerak ez aurkeztutzat joko dira.

Edonola ere, eskatzaileak datuen faltsutasunaren eta zehaztasunik ezaren erantzule izango dira, eta hori arrazoi nahikoa izango da kasuan kasuko deialdiari dagokion eskaera baztertzeko.

7.3. Ikus-entzunezko Lanen proiektuak hautatzea. Balorazio-irizpideak.

Behar bezala aurkezten diren Ikus-entzunezko Lanen proiektuak hautatu, aztertu eta baloratu egingo ditu xede horretarako sorturiko Balorazio Batzorde batek (aurrerantzean, "**Balorazio Batzordea**").

Eskaerak Aurkezteko Prozeduraren oinarrietan jasotzen diren irizpideen (eta azpirizpideen) arabera baloratuko dira. Balorazio Batzordeak, besteak beste, eta dagokion oinarrietan zehaztutakoa gorabehera, honako irizpide hauek baloratuko ditu:

- Proiektuaren egokitasuna Hitzarmen honekin jarraitzen diren helburu eta xedeei dagokienez.
- Emakumeen parte-hartzea proiektuan.
- Proiektuaren kalitate tekniko eta artistikoa.
- EITBren programazio-premietara egokitzea.
- Aurrekontua eta proiektura egokitzea.
- Ekoizlearen kaudimena.
- Euskadin kokaturiko edo helbideraturiko baliabideen erabilera (Sortzaileak barne).
- Euskararen promozioa, zabalpena eta erabilera.
- Hedapen-, zabalpen- eta merkaturatze-estrategia (nazioartean izan dezakeen irismena hartuko da kontuan bereziki).
- Nazioarteko koprodukzioa.
- Filmaketa-plan jasangarriak.

7.4. Formalizazioa.

7.4.1. Interes-gutuna.

Balorazio Batzordearen bileraren ostean, eskatzaileei beren Ikus-entzunezko Lanen proiektuak hautatuak izan direla jakinaraziko zaie eta interes-gutun bat emango zaie; bertan, Aurretiazko Finantzaketaren zenbatekoa eta bestelako finantzaketa-baldintzak eta emandako eskubideak lagatzeko baldintzak jasoko dira. Aurretiazko Finantzaketaren zenbatekoa eta bestelako baldintzak berrikusi egingo dira EITBekin Kontratua sinatzen denean.

Interes-gutunak 18 hilabeteko indarraldia izango du, baina Balorazio Batzordeak, egokitzen jotzen duenean eta Euskal Produkzio-etxe Independentek hala eskatuta, luzapenak eman ahalko ditu, behar bezalako aurrerapenarekin eta hala justifikatzen duten arrazoiak ematen badira.

MP
6

800

A

EITBk emandako Interes-gutun batek hizpide dituen proiektuek hitzarmen honetan ezarritakoa bete beharko dute, Interes-gutuna sinatzen den egunetik aurrera eta Ikus-entzunezko Lanaren ekoizpen-aldi guztian zehar.

7.4.2. Kontratazioa

Interes-gutunaren indarraldia iraungi baino gutxienez hogeita hamar (30) eguneko aurrerapenarekin, baldin eta Euskal Produkzio-etxe Independentek Hitzarmen honetan ezarritakoa bete badu, azken honek EITBri bidali beharko dio honako dokumentazio hau:

- i) Eskatzailearen (pertsona fisikoa edo juridikoa) nortasuna egiaztatzen duten dokumentuak. Pertsona juridikoaren kasuan, noren izenean esku hartzen duen egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu.
- ii) Aurreko 7.1 klausulan aurreikusitako baldintzak betetzearen indarraldia egiaztatzen duten dokumentuak.

Bereziki, eta Euskal Produkzio-etxe Independente batek Ikus-entzunezko Lanaren titulartasunaren gaineko bere eskubide batzuk EIT bati lagatzen dizkion kasuetan (honela Euskal Produkzio-etxe Independentek ez du izango Ikus-entzunezko Lan bakoitzerako aurreikusitako gutxieneko ehunekoa), Euskal Produkzio-etxe Independentek EITBri egiaztatu beharko dio, EITBrekin Kontratua sinatzen duenean, Ikus-entzunezko Lanaren gaineko titulartasunaren ehunekoan atzera egiteko itun edo hitzarmen bat sinatu duela. Atzera egiteko itun horrek bermatu beharko du, modu eraginkor eta loteslean, inolako baldintzarik gabe, Euskal Produkzio-etxe Independentek lagatako titulartasun-ehunekoa berreskuratu eta izango duela gehienez hiru (3) urteko epean, Ikus-entzunezko Lanaren kalifikazio-egunetik zenbatzen hasita, eta titulartasun hori mantendu beharko du, gutxienez, kalifikaziotik sei (6) urte igarotzen direnera arte.

Era berean, eta Euskadin produkzio-kostuetan egindako gutxieneko gastu bat (Ikus-entzunezko Lanaren aurrekontuarena) egiaztatzeko beharrari dagokionez, 1-Eranskinean Lan-mota bakoitzerako aurreikusitako baldintzetan, Lanean parte-hartuko duten langile tekniko eta artistikoekin sinatu dituen kontratu osoak aurkeztu beharko dira (une bakoitzean indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraikiz babesgarriak direnak izan ezik). Horiek oraindik ez badira sinatu, filmatzen hasi izanaren ziurtagiriarekin batera aurkeztu beharko dira, kasu bakoitzean EITBrekin sinaturiko Kontratuan aurreikusitako bigarren ordainketa egiteko. Era

berean, Euskadin inbertsio gisa kontuan hartzen diren enpresen eta langileen zerga-helbideratzea egiaztatu beharko da, eta auditoretzan zerga-egoitza EAEn duten langileen eta enpresen banakapen bat jaso beharko da, atal hau betetzen dela egiaztatze aldera. Hitzarmenean ezarritako EAEn egindako inbertsioa betetzen ez bada, EITBk kontratua baliogabetu eta aurreratutako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahalko luke.

- iii) Oinarrietan aurreikusitako irizpideak ematen direla eta proiektua aukeratzeko orduan irizpide horiek kontuan hartu direla egiaztatzen duten dokumentuak.
- iv) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkala egiaztatzen duen agiria.
- v) Ikus-entzunezko Lanaren aurrekontuaren % 80 bermatuta duela egiaztatzen duen agiria (ondorio hauetarako, EITBren Aldez Aurreko Finantzaketaren zenbatekoa zenbatuko da). Xede horretarako, agiri horrekin batera edozein eratarako hitzarmen edo kontratuak aurkeztu beharko ditu (estatuko koprodukzioen kasuan, Notario aurrean sinaturiko kontratuarekin eta, nazioarteko koprodukzioen kasuan, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren ziurtagiriarekin); besteak beste, adibide gisa eta ez zerrenda itxi modura, honako hauek jasotzen dira: Ikus-entzunezko Lana telebista bidez edozein modalitatetan (TB librea / ordainpeko TB, kodifikatua / kodifikatu gabea, programazio finkoduna edo kartarako programazioa duena, ordainpeko emanaldiak eskaintzen dituen, eskaeraren araberrako edozein bideo-modalitate, sarbide askekoa eta orokorrean ustiatu daitekeen beste edozein telebista-modalitatetan) zabaltzeko aurrezalmenta-kontratuak; OTT zerbitzuen Plataformekin sinaturiko aurrezalmenta-kontratuak; telefono mugikor digitaleko edozein sistemaren bidez lana publikoaren eskura jartzeko aurrezalmenta-kontratuak; banaketaren eta nazioarteko salmenten aurrerakinak; laguntzak eta dirulaguntzak eman izana egiaztatzen duten agiriak; zerbitzuen kapitalizazioa (% 12,5 gehienez); koprodukzio-kontratuak; inbertso pribatuekin sinaturiko kontratuak; eskubide osagarriak (komunikazio publikoa garraioetan, heziketa-zirkuituak) buruzko aurrezalmenta-kontratuak; *merchandising*-lizentziak eta eratorritako produktuen lizentziak.

EITBk, ikus-entzunezkoen sektoreko ordezkariekin batera, edozein finantzaketa-formula onartzea baloratu eta erabakiko du, zeina aurreko paragrafoan deskribaturikoetara txertatu ahalko baita.

EITan parte hartzen duten inbertitzaileen finantzaketa erabiltzen bada lana aurrefinantzatzeko baldintza betetzen dela egiaztatzeko, EITBk inbertsio-kontratu bat eskatuko dio Produktore Independenteari. Kontratu hori bermatuta egon beharko da elkar bermatzeko sozietate ("EBS") batek edo hirugarren batek modu atzeraezinean bermaturiko kreditu-gutun baten bidez (banku-mailegua).

EITBk ez ditu onartuko eta ez ditu zenbatuko, aurreko ondorioetarako, hirugarrenekin formalizatutako interes-gutunak edo asmo-akordioak; baldin eta horien eraginez ustiatzeko, parte hartzeko, inbertitzeko edo finantzatzeko edozein kontratu formalizatzea; kontratu horiek indarrean sartzea; horien izaera loteslea, edo zenbait irizpide edo baldintza betetzeari dagokionez eraginkorrak izatea mugatzen bada.

Dokumentazio hori EITBri bidali beharko zaio Interes-gutunaren indarraldia iraungi aurreko hamar (10) egun balioduneko epean.

Aurretik aipaturiko dokumentazio guztia adosturiko epearen barruan aurkeztea alde aurreko ezinbesteko baldintza izango da EITBekin Kontratua sinatzeko. Ez bada modu egokian eta epearen barruan aurkezten, proiektua baztertu egingo da, ondorio guztietarako.

Aurreko betebeharrak betetzen direla egiaztatu ostean, EITBekin Kontratua sinatu beharko da, Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzei eta edukiei jarraikiz. Hala ere, horrek ez die eragingo EITBk eta kasuan kasuko Ikus-entzunezko Euskal Produkzio-etxeak adosten dituzten akordioak, konpromisoak eta gainerako baldintzen beharrezko garapen eta zehaztasunari.

EITBekin sinatzen den Kontratua Interes-gutunaren indarraldia iraungi osteko hiru (3) hilabeteetan gauzatu beharko da.

8. IKUS-ENTZUNEZKO LANEN AURREKONTU-ALDAKETAK

Produkzio-kostuen auditoretza-txostenean jasotzen den Ikus-entzunezko Lanaren produkzio-kostua Aurkezteko Prozeduran zehar aurkezturiko aurrekontuan ezarritakoa baino handiagoa izango balitz, EITBk Ikus-entzunezko Lana ustiatzeko eskubideen gainean duen ehunekoa aldatu gabe mantenduko da, desbideratzea behar bezala justifikatu den eta EITBk 11. klausulan ezarritakoari jarraikiz onesten duen kasuetan izan ezik, eta ehuneko hori ez bada aurrekontuaren % 10 baino altuagoa. Kasu horretan, likidaziorako, EITBk lanaren gainean duen ehunekoa birkalkulatu egingo da.

Aitzitik, produkzio-kostuen auditoretza-txostenean jasotzen den Ikus-entzunezko Lanaren produkzio-kostua aurrekontuan sartutakoa baino baxuagoa bada, EITBk bere ekarpena murriztuko du eta adierazitako ehunekoa mantenduko du. Aldeek EITBren sinaturiko Kontratuan Lanak sortzen dituen diru-sarrerari dagokien ustiatzeko eskubideei eman dieten balorazioari aplikatuko zaio ekarpenaren murrizketa, eta honela kalkulatu da:

Murrizketaren zenbatekoa bi hauen arteko aldea da: (i) Aurkezteko Prozeduran zehar aurkezturiko aurrekontuan ezarritako Lanaren kostua eta Lanak sortzen dituen diru-sarrerari dagokien ustiatzeko eskubideen (EITBri lagatakoak) gaineko ehunekoa biderkatzearen ondoriozko zenbatekoa ken (ii) produkzio-kostuen auditoretza-txostenean jasotzeko produkzio-kostua eta Lanak sortzen dituen diru-sarrerari dagokien ustiatzeko eskubideen (EITBri lagatakoak) gaineko ehunekoa biderkatzearen ondoriozko zenbatekoa.

Murrizketaren zenbatekoa zehazteko erabiliko den formula honako hau izango da: $M = (A \times P) - (B \times P)$.

Azalpena:

- **M**: murrizketaren zenbatekoa;
- **A**: aurrekontuan sartutako kostua;
- **P**: Lanak sortzen dituen diru-sarrerari dagokien ustiatzeko eskubideen (EITBri lagatakoak) ehunekoa;
- **B**: ikuskatutako kostua;




Adibidea:

DATUAK, KONTRATUAREN ARABERA

ETBren ehunekoa	% 11,11
Ekarpena	370.333,00€
Publizitatea	33.000,00€
Emisio-eskubideak	60.000,00€
ETBren ekarpena, guztira	463.333,00€

KALKULUAK, AUDITORETZAREN ARABERA

Aurrekontuan sartutakoa	3.333.333,00€
Ikuskatua	3.000.000,00€
Aurrekontuan sartutakoaren/Ikuskatutakoaren arteko aldea	333.333,00€
Ekarpenaren kalkulu berria	333.300,00€
Ekarpenaren aldea	37.033,00€

MF  23  

MURRIZKETA

Ehunekoa	% 11,11
ETBren azken ekarpena	426.300,00€
Murriztutako zenbatekoa	37.033,00€

Kasu honetan, EITBk ordaintzeke dagoen edozein ordainketa gelditzeko ahalmena izango du, EITBekin sinaturiko Kontratua arautuko duten baldintza berriak ezartzen ez diren bitartean.

Euskal Produkzio-etxe Independentek uko egiten badio EITBren ekarpena murrizteko erabakia gauzatzeari, EITBekin sinaturiko Kontratua hautsiko du eta berori automatikoki baliogabetzeko arrazoia izango da.

9. ORDAINTZEKO MODUA.

Aldez Aurreko Finantzaketaren zenbatekoa honela eta honako epe hauekin ordainduko da:

Ekarpenaren % 25 ustiatzeko eskubideak lagatzeagatik kontratua sinatzerakoan

Ekarpenaren % 30 ustiatzeko eskubideak lagatzeagatik filmazioaren hasieran

Ekarpenaren % 25 ustiatzeko eskubideak lagatzeagatik filmazioaren amaieran

Ekarpenaren % 10 ustiatzeko eskubideak lagatzeagatik aretoetan estreinatzen denean

Ekarpenaren % 10 ustiatzeko eskubideak lagatzeagatik eta prezioaren % 50 komunikazio-eskubideak lagatzeagatik materialak entregatu eta onartzerakoan

Prezioaren % 50 komunikazio-eskubideak lagatzeagatik lizentziaren hasieran

Publizitate-kanpainaren emisioaren ostean, horri dagokion faktura igorriko da.

Kontratuak fakturazio-mugarri bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa jasoko du

Ordainketak fakturatik hogeita hamar (30) egun igarotzean gauzatuko dira, eta gutxienez hamabost (15) egun igaro beharko dira faktura bat igortzen denetik hurrengoa igortzen denera bitartean.

Aurrekoa gorabehera, EITBk Ikus-Entzunezko Lanaren kostuaren ikuskatutako

emaitzen arabera erreserbatu eta egingo du zabalpen-eskubideen erosketaren azken ordainketa; hain zuzen ere, kontratuan hitzartutakotik desbideratzerik gertatuz gero, kopurua zuzendu ahal izango du. EITBk auditoretza-txostenaren emaitzaren arabera egingo du azken ordainketa, eta zabalpen-eskubideei dagozkien zenbatekoa murriztea aukeratuko du ikuskatutako aurrekontua EITBrekin sinaturiko Kontratuan jasotakoa baino baxuagoa izango balitz.

Era berean, fase bakoitzean ordaintzeko betebeharra sortzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Produkzio-etxe Independentek EITBrekin sinaturiko kontratuan fase bakoitzerako aurreikusitako dokumentazio guztia aurkeztea.

10. PRODUKZIOAREN KUDEAKETA, KONTROLA ETA AUDITORETZA

10.1. Euskal Produkzio-etxe Independente bakoitza arduratu beharko da finantzaturiko Ikus-entzunezko Lanaren produkzioa kudeatzeaz, bai eta hori gauzatu eta zuzentzeaz eta, orokorrean, Ikus-entzunezko Lana behin betiko amaitu arte beharrezko eragiketa guztiak egiteaz ere.

Produkzioaren kudeatzailea gisa, Euskal Produkzio-etxe Independentek zuzenean ziurtatu beharko dio EITBri produkzioa martxa onean doala bere fase guztietan eta berori behar bezala amaitu dela. Euskal Produkzio-etxe Independentek zuzenean ziurtatu beharko dio EITBri aipaturiko jarduerari dagozkion legezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta produkzio honetatik eratortzen diren betebeharrak guztiak.

Euskal Produkzio-etxe Independentek betebeharrak horiek behar bezala betetzen direla bermatuko du, eta EITB salbuetsita dago aipaturiko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko edozein ekintza edo erantzukizunei dagokienez, hirugarrenen aurrean (Administrazioa eta produkzioan parte hartzen dutenak barne).

10.2. EITBk Ikus-entzunezko Lanari dagokion dokumentazio guztia eskuratu ahal du, bai eta EITBrekin sinaturiko Kontratua indarrean dagoen bitartean une bakoitzean beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia bildu ere, eta Euskal Produkzio-etxe Independentek ezingo dio ukatu hori eskuratu edo bidaltzea.

10.3. Ikus-entzunezko Lanaren Kostua Euskal Produkzio-etxe Independentek EITBri aurkeztuko dion produkzio-kostuen auditoretza-txostenaren arabera ezarriko da.

Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari auditoretza-txostena

aurkeztu zaion kasuan, berori aurkeztu beharko da eta ez da onartuko aldaketarik.

Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari ez bazaio aurkeztu auditoretza-txostenik, aurkezten den txostenak honako baldintza hauek bete beharko ditu: (i) Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak une bakoitzean ezarritako mugak aplikatuko zaizkie egikaritze-kostutik kanpo geratzen diren partidei zein indarrean dagoen araudia betetzeari dagokien partidei, eta (ii) ez dira onartuko fakturazio-epeak, kontabilitate-arau aplikagarriak edo indarrean dagoen kontratazio-araudia betetzen ez dituzten partidak.

Modu osagarrian, eta Euskal Produkzio-etxe Independentek produkzioarako Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren laguntzak jaso izan balitu, era berean, Ikus-entzunezko Lanaren kostuaren aitortpen-txostena (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak igorria) aurkeztu beharko zaio EITBri.

10.4. Desbiderapen nabarmenik balego Aurkezteko Prozeduran zehar aurkezturiko aurrekontuan eta auditoretza-txostenean jasotakoaren artean, EITBk dagozkion azalpenak eskatzeko ahalmena izango du.

Aurrekoa gorabehera, EITBk Ikus-entzunezko Lanari dagokion ekonomia-, finantza- eta kontabilitate-kudeaketa egiaztatzeko beste auditoretza alternatibo bat eskatzeko ahalmena izango du. Auditoretza hori egitearen ondoriozko gastu eta ordainsariak EITBk ordaindu beharko ditu, salbu eta auditoretza horretatik ondorioztatzen bada Euskal Produkzio-etxe Independentek auditoretzara aurkeztu den informazioa faltsutu, ezkutatu edo aldatu duela. Hori EITBekin sinaturiko Kontratua baliogabetzeko arrazoia izango da.

11. EUSKAL PRODUKZIO-ETXE INDEPENDENTEEN BETEBEHARRAK.

Beren Ikus-entzunezko Lanen proiektuak hautatuak izan diren Euskal Produkzio-etxe Independentek Hitzarmen honetan aurreikusitako zein EITBekin sinaturiko Kontratuan adosturiko betebeharrak bete beharko dituzte, alderdi guztietan.

Modu osagarrian, eta adibide gisa eta ez zerrenda itxi modura, honako betebehar hauek bete beharko dituzte:

- Euskal Produkzio-etxe Independentek Ikus-entzunezko Lanaren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen titulartasunaren gutxienezko ehuneko mantendu beharko dute Ikus-entzunezko Lan-mota bakoitzerako gutxienez sei (6) urteko epean zehar, lanaren kalifikaziotik zenbatzen hasita; hori guztia, 7.4.2 klausulan ezarritakoari jarraikiz. (ii) EITBekin dagokienez, kasu horretan Euskal Produkzio-etxe Independentek atzera egiteko ituna edo hitzarmena bete beharko du.

- EITBri une bakoitzean eskatzen zaion Ikus-entzunezko Lanari buruzko informazioa edo dokumentazioa helaraztea.
- EITBri onetsitako hasierako proiektuan funtsezko aldaketak sartuko direla jakinaraztea, hala nola honako hauek aipatzen dira, besteak beste eta adierazpen gisa: zuzendariaren edo gidoilarien ordezkapena, aldaketak castingean, talde teknikoko buruak, lokalizazioak, filmatzeko egunak, koproduktoreen sarrera eta irteera eta, edozein kasutan, aurrekontu-aldaketa bat dakarren edozein aldaketa. Jakinarazpen hori aldaketa sartzen denean egin beharko da eta, edozein kasutan, aldaketa gauzatu aurretik.
- Une oro Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak betetzea.
- Langile tekniko zein artistikoen kontratazioari dagokionez, Ikus-entzunezko Lanerako lan-kontratu espezifikokoak formalizatu beharko dira eta, ondorioz, kontratazio horrek kasuan kasuko Lanerako dakarren kostua adieraziko da.
- EITBrekin sinaturiko Kontratuan ezartzen den data baino lehen Ikus-entzunezko Lana egin eta aurkeztea.
- Ikus-entzunezko Lanaren nazionalitate espainiarraren ziurtagiria eta adinaren araberako ziurtagiria eskuratzea, dagokion moduan eta epean.
- Produkzio-kostua egiaztatzea, une bakoitzean aplikagarria den legerian eskatzen den xehetasun eta irismenarekin eta bertan ezartzen den moduan.

Lanaren aurrekontuetan fotokopietara, publizitatera eta promoziora (P&A) bideratutako zenbatekoa jaso beharko da, eta zenbateko horrek kapitulu honetarako Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren edo Eusko Jaurlaritzaren araudietan ezartzen diren gutxieneko zenbatekoak bete beharko dituzte, proiektuak dirulaguntzak jaso baditu eta ez badago aipaturiko kasuetan, egikaritze-kostuaren % 5 gutxienez.

- Ikus-entzunezko Lanaren produkzio-, filmazio-, merkaturatze-, banaketa- eta hedapen-prozesu osoan zehar indarrean dagoen legeria aplikagarriak une bakoitzean eskatzen dituen betebeharrak eta baldintzak betetzea.
- Hitzarmen honetatik eta EITBrekin sinaturiko Kontratutik eratorri daitezkeen beste betebeharrak guztiak betetzea, kontratuzko fede onaren printzipiotik eratorri daitezkeen guztiak barne. Bereziki, finantzaketak xede duen Ikus-entzunezko Lana

behar bezala eta erabat amaitzera bideratutako beharrezko jarduera burutu beharko da.

- EITBri ez diezaiotela kalterik eragin merkatuaren, jardunbide egokien eta ohituren irizpideen arabera enpresaburu arduratsu gisa Euskal Produkzio-etxe Independenteari eska dakizkioken kontratuzko betebeharrak ez betetzearen ondorioz eta, bereziki, hitzarmen honetan eta EITBrekin sinaturiko Kontratuan jasotako betebeharrak ez betetzearen ondorioz hirugarrenek aurkezten dituzten erreklamazioek. Ez betetze horien artean, besteak beste, honako hauek sartzen dira: zuzeneko zein zeharkako kalteak eta, bereziki, sortutako kaltea zein lortu gabeko irabazia, gastuak eta kostu judizialak eta abokatu eta prokuradoreen gastu eta kostuak.
- Ikus-entzunezko Lanaren produkzio-kostua aurrekontuan sartutakoa baino baxuagoa bada, Euskal Produkzio-etxe Independentek EITBren ekarpena murrizteko erabakia formalizatu beharko du.

12. EZ BETETZEA. DIRUA ITZULTZEA.

Aldeetako edozeinek kontratu honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez badu, beste aldeak betetzeko exijitu ahal izango dio, edo, bestela, hitzarmena suntsiarazi ahal izango du. Batera zein bestera, kalte-ordaina jasotzeko akzioak baliatu ahal izango ditu.

Ikus-entzunezko Lana gauzatzeko finantzaketa jasotzen duen Euskal Produkzio-etxe Independentek ez baditu betetzen, Hitzarmen honen arabera, bertan eta EITBrekin sinaturiko Kontratuan onarturiko betebeharrak, edo Euskal Produkzio-etxe Independentek ez badu gauzatzen adosturiko gehieneko epean finantzaturiko Ikus-entzunezko Lanaren produkzioa, EITBk edozein kontzepturengatik jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahaliko dio.

Era berean, EITBrekin adosturiko betebeharrak betetzen ez baditu, Euskal Produkzio-etxe Independentek ezingo du parte hartu, Ikus-entzunezko Lanaren produktore edo koproduktore gisa, EITBk Aldez Aurreko Finantzaketa jasotzeko martxan jartzen dituen prozeduretan, lau (4) urteko epean, ez-betetzea gauzatzen den egunetik zenbatzen hasita. Pertsona fisikoa den Euskal Produkzio-etxe Independentearen kasuan, pertsona fisiko hori, zuzenean edo zeharka hirugarrenen bidez, pertsona juridiko baten kapital sozialean parte hartzen badu edo bertako administratzailea bada (zuzenbidekoa edo egitatezkoa), aipaturiko bazterketa pertsona juridiko horretara ere iritsiko da. Era berean, pertsona juridikoa den Euskal Produkzio-etxe Independentek batek baldin

- (i) EITBrekin adostu dituen betebeharrak betetzen ez baditu eta
- (ii) aipaturiko pertsona juridikoaren kontrola duten (Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definitzen denaren arabera) edo horren Administrazio Kontseiluaren parte diren pertsona fisikoetako batek edo batzuek beste pertsona juridiko desberdin bat osatzen badute EITBrekin Hitzarmen honen esparruan kontratatzeko xedearekin,

orduan, klausula honetako lehenengo paragrafoan definituriko murrizketa aplikatuko du, eta sozietate berri horri galarazi egingo zaio Aldez Aurreko Finantzaketa eskuratzea lau (4) urteko epean zehar, ez-betetzea gauzatzen den egunetik zenbatzen hasita.

13. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, "**Datuen Babeserako Araudia**") ezarritakoaren arabera, Hitzarmen hau sinatuz, Aldeen pertsona fisiko ordezkariak adierazi dute ezagutzen dituztela beren datu pertsonalen (Hitzarmen honetan jasoak) zein Aldeen arteko kontratuzko harremanaren esparruan ematen diren eta harreman hori bete eta garatzeko beharrezkoak diren datuen tratamendu-baldintzak eta tratamendu horretarako baimena ematen dute.

Datu pertsonalen tratamenduaren xedea da lokalizazio profesionala erraztea, Aldeen arteko merkataritza-harremana mantentzeko, indarrean dagoen legeriari jarraikiz. Tratamendua Aldeek Hitzarmen honetan arauturiko kontratuzko harremana mantentzeko duten interes legitimoa oinarri hartuta gauzatzen da.

Aldeek adostu dute ez dizkiotela daturik lagako hirugarrenei. Datuak gorde egingo dira Aldeen kontratuzko harremana mantentzen den bitartean. Horren ostean, legeria aplikagarrian ezarritako epean zehar; orduan, erantzukizunak eratorri daitezke Aldeentzako.

Era berean, Euskal Produkzio-etxe Independenteen Ikus-Entzunezko Lanek finantzaketa jasotzen dutenean, produkzio-etxe horiek Ikus-entzunezko Lan bakoitzean esku hartzen duten sortzaileen datu pertsonalen tratamendurako aplikagarria den Datuen Babeserako Araudia betetzeko konpromisoa hartuko dute.

NF

14. IRAUPENA ETA BERRIKUSPENA.

Hitzarmen honek, hasiera batean, hiru (3) urte iraupena izango du, eta 2022ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean.

Hitzarmena iraugitzen denean, Aldeek, elkarrekin adostuta, idatziz adostu beharko dute hitzarmenaren luzapena, Hitzarmen honetara atxikita geratuko den eranskin bidez, eta komeni denaren arabera edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiari jarraikiz behar denaren arabera aldatuko dute.

Aurrekoa gorabehera, Aldeek adostu dute Hitzarmen hau berrikusi egin ahalko dela hiru (3) urtean behin, sinatzen den egunetik aurrera, Aldeetako batek hala eskatuz gero. Hala badagokio, Hitzarmen honetan adostutakoari dagokion edozein aldaketa, eranskin edo luzapen elkarrekin adostu beharko dute Aldeek, idatziz, eta Hitzarmen honetara atxikita geratuko den eranskin bidez.

15. JAKINARAZPENAK

Aldeek harremanetarako pertsona gisa eta jakinarazpenetarako helbide gisa izendatuko ditu honako hauek:

EITB:

Norentzat: Ibone Bengoetxea Otaola
Helbidea: Basurtuko Kaputxikoen kalea 2, 48013
Helbide elektronikoa: bengoetxea_ibone@eitb.eus

IBAIA:

Norentzat: María Ángeles Fernández Pascal
Helbidea: Donostia-San Sebastián, Juan Fermín Gilisagasti 4, 3º, 303 bulegoa (Zuatzu), 20018
Helbide elektronikoa: info@ibaia.org

EPE/APV:

Norentzat: Carlos Juárez Morejón
Helbidea: Bilbao, Zumalakarregi Zumarkalea 48, behe, 48006
Helbide elektronikoa: info@epe-apv.com

APIKA:

Norentzat: María Teresa Ruiz de Austri Villán
Helbidea: Vitoria-Gasteiz, Badaia, 2, 1.D CP 01012
Helbide elektronikoa: apika.asociacion@gmail.com

Arestian aipaturiko datuen edozein aldaketa lehenbailehen jakinarazi beharko dute Aldeek.

Aldeek Hitzarmen honetan ezarritakoa betetze aldera beren artean egin behar dituzten jakinarazpenak baliozkoak izango dira eta ondorioak izango dituzte, baldin eta idatziz egiten badira; izan ere, horrek aukera emango du arrazoiz frogatzeko jakinarazpena egin zela eta jasotzaileak jaso zuela. Adibide gisa besterik ez, aldean arteko jakinarazpenak egiteko, baliozko bitarteko gisa ezartzen dira honako hauek: gutuna, posta ziurtatua, burofaxa eta posta elektronikoa.

16. JARRAIPEN BATZORDEA

Aldeek elkarte bakoitzeko gehienez bi ordezkari eta EITBren 3 ordezkari osaturiko Jarraipen Batzorde Parekide bat sortzea adostu dute. Batzorde hori sei hilean behin bilduko da, eta bilera horretan honako gai hauek aztertuko dira: aurkezturiko proiektu-kopurua, sinaturiko gutun-kopurua, EITBrekin sinaturiko Kontratuak eta Hitzarmen hau zein EITBrekin sinaturiko indarreko Kontratuak gauzatzearekin eta betetzearekin beren-beregi loturiko beste edozein kontu. Era berean, sektorearen egoeraren azterketa eta jarraipen hobe bat egitea ahalbidetuko duten datu estatistikoak trukatu dituzte.

17. MISZELANEA.

17.1. Hitzarmenaren lagapena.

Aldez aurretik beste Aldearen baimena jaso ezean, Aldeetako batek ere ezingo dizkie laga hirugarrenei Hitzarmenean duen posizioa edo bertatik eratoritzen diren betebeharrak edo eskubideak.

17.2. Ezinbesteko kasua.

Behartua dagoen Aldea ezinbesteko kasu bat dela eta ez badu betetzen Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera onartu dituzten betebeharrak bat edo betebeharrak hori zati batean, berandu edo akatsekin betetzen badu, ez da erantzuletzat joko, baldin eta egiaztatzen badu inguruabar horrek betebeharrak behar bezala betetzea eragozten diola.

Ezinbesteko kasuak kalteturiko Aldeak idatziz jakinaraziko dio beste aldeari hamar (10) egun balioduneko epean, gertaera hori ematen den unetik zenbatzen hasita, eta inguruabar horrek dagokion betebeharrak gauzatzea nola eragiten duen egiaztatu beharko du.

Ezinbesteko kasu bat dela-eta betebeharra zati batean, berandu edo akatsekin betetzen den kasuetan, betebeharrak hori betetzera behartuta dagoen Aldeak ahalegin guztiak egingo ditu betebeharrak hori gauzatzeko, Hitzarmenean jasotako Aldeen asmo komunari jarraikiz. Aldeek aipaturiko kasuak inola ere eragiten ez dituen betebeharrak betetzen jarraitu beharko dute.

17.3. Deuseztasuna eta eragingabetasuna.

Hitzarmen honetako edozein klausula erabat edo zati batean baliogabetzat edo eragingabetzat joko balitz, baliogabetasun edo eragingabetasun horrek xedapen horri bakarrik eragingo dio, edo baliogabea edo eragingabea den zatiari; eta Hitzarmena indarrean egongo da gainerakoan, eta xedapen hori edo eragingabetasun hori ez jarritzat hartuko da. Ondorio horietarako, Hitzarmenak xedapen baliogabe edo eragingabetasun dagokionez galduko du bakarrik baliotasuna beren-beregi, eta baliogabetasun edo eragingabetasun horrek ez ditu baliogabetu, kaltetu edo eragingo Hitzarmen honen gainerako zati edo xedapenak, salbu eta ezinbestekoa bada Hitzarmen osoari eragin behar badio.

17.4. Hitzarmen bakarra.

Hitzarmen hau, bere Eranskinekin eta hitzarmenaren arabera formalizatu behar diren gainerako dokumentuekin batera, Aldeen arteko baliozko akordio bakarra da, horren xedeari dagokionez, eta ondorioz gabe uzten ditu Aldeek aurretik sinatu dituzten beste hitzarmen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak.

17.5. Aldaketak.

Hitzarmen honen aldaketa edo eranskinak ez dira baliozkoak izango, salbu eta idatziz gauzatzen badira eta Alde bakoitzak sinatzen badu.

17.6. Epeen zenbaketa.

Hitzarmen honetan egun baliodunetan finkaturiko epeak aurreikusten badira, ulertuko da ez direla baliodunak larunbatak, igandeak eta Bilboko jaiegunak.

17.7. Ustiapen-etekinen berrinbertsioa

EITBk Hitzarmen honen arabera ekoizten diren lanen bere ustiapen-ehunekoaren likidazio gisa jasotzen dituen zenbatekoak berrinbertituko ditu. Berrinbertsio hori ordaindu osteko ekitaldian burutuko da eta, horretarako, alde aurretik finantzatuko ditu berrinbertsioaren egunean indarrean dagoen araudian aurreikusten diren edozein motatako ikus-entzunezko lanak (EITBk hautatuak).

EITBk berrinbertsioaren zenbatekoaren informazio banakatua bidaliko die urtero sinatzen duten Produktoreen Elkartei.

17.8. Negoziatio-konpromisoa

Hitzarmen hau araudi-trantsizioko une batean formalizatzen da. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen zuzentaraua transponituko duen eta gaur egun indarrean dagoen Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko 7/2010 Lege Orokorra ordezkaturiko duen Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokor berria Parlamentuan izapidetzen ari delako eta datozen hilabeteetan indarrean sartzea aurreikusten delako. Hori horrela, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokor berria indarrean sartzen den unean, aldeek konpromisoa hartuko dute, beharrezkoa balitz, Hitzarmen honen edukia araudi berrira egokitzeko beharrezkoak diren negoziaketak abiarazteko. Horrez gain, EITBk konpromisoa hartzen du hitzarmen honen edo beste hitzarmen osagarri batzuen esparruan, lege berriak ezartzen duen Europako lan bat alde aurretik finantzatzeko legezko betebeharraren zenbatekoaren % 75 (gutxienez) gauzatzeko.

18. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Hitzarmen hau Espainiako legeen mende geratuko da, bai eta aplikagarriak diren estatu-mailako eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeen mende ere.

Aldeen artean edonolako desadostasunik edo desakordiorik gertatzen bada hitzarmen hau edo honen edukia dela eta, Aldeek negoziatu egingo dute fede onez, desadostasun edo desakordio hori irtenbidea bilatzen saiatzeko gehienez hilabeteko (1) epean, aldeetako batek formalki jakinarazten dionetik beste aldeari desadostasun bat agertu dela. Aldeetako batek jakinarazpen hori egin ostean, horiek batzorde tekniko juridiko parekide bat osatuko dute desadostasun edo desakordioari irtenbidea bilatzeko. Batzorde hori honela osatuko da: zuzenbideko [bi] profesional (horietako bat EITBk izendatuko du eta bestea, batera, IBAIA, EPE/APV eta APIKak), EITBk izendaturiko hiru (3) pertsona eta IBAIA, EPE/APV eta APIKak izendaturiko hiru (3) pertsona.

Desadostasun edo desakordioari ez bazaio irtenbiderik aurkitzen adierazitako gehieneko epearen barruan, Aldeek, legez legokiekeen beste edozein foruri berariaz uko eginez, Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren mende jarriko dira.

MF

Eta jasota gera dadin eta ados daudela adierazteko, aldeek dokumentu honen lau ale sinatu dituzte, orri guztietan, eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

EITB MEDIA, S.AU.ren ordez

IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL
EKOIZLE BURUJABEEN ELKARTEA
(IBAIA)ren ordez

Jon Andoni Aldekoa de la Torre jauna

María Ángeles Fernández Pascal andrea

EUSKAL PRODUKTOREEN
ELKARTEA (EPE/APV)ren ordez

ARABAKO IKUSENTZUNEZKO
PRODUKTOREEN ELKARTEA
(APIKA)ren ordez

Carlos Juárez Morejón jauna

María Teresa Ruiz de Austri Villán
andrea

I. ERANSKINA

1. HITZAURREA

Eranskin honetan azalduko da zer ekarpen-konpromiso hartzen duen EITBk hautatzen den ikus-entzunezko lan bakoitzerako hitzarmenean xedatzen denaren arabera eta bertan ezartzen denarekin bat etorritz.

Eranskin honetan honako ikus-entzunezko lan hauek izango ditugu hizpide:

1.- Fikziozko film luzeak, euskaraz jatorriz.

Hitzarmenaren atal hau sozietate eta zerga egoitza Nafarroako Foru Komunitatean duten produkzio-etxe independenteei ere aplikatuko zaie, baldin eta hitzarmenean ezartzen diren gainerako betebeharrak guztiak betetzen badituzte.

2.- Animazioko film luzeak, euskaraz jatorriz.


3.- Fikziozko film luzeak, gaztelaniaz jatorriz (irudi erreala eta animazioa).

4.- Egile-dokumental zinematografiko luzeak.

5.- Telebistarako sormen-dokumentalak.

6.- Film laburrak.

no



1. Fikziozko film luzeak, euskaraz jatorriz.

- 1.1. EITBk konpromisoa hartzen du interes-gutuna jasotako euskal produkzio-etxe independente batek bere kabuz edo batzuek elkarrekin ekoiztutako fikziozko film luzeak (irudi erreala), jatorrizko bertsioa euskaraz dutenak, finantzatzen laguntzeko, eranskin honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatuz gero. Horrez gainera, produkzio-etxeek honako betekizun hauek ere edukiko dituzte:
- a. Film luzea ustiatzeko eta merkaturatzeko behar diren jabetza intelektualaren eskubideen % 25 baino gehiago eduki behar dute, atzerriko partaidetza zenbatu gabe, jabetza intelektualaren gaineko legerian eskubide horiek eskualdatzeaz eta erabiltzeaz ezartzen dena gorabehera. Produkzio-etxeak eskubide horien % 25 eduki beharko du sei (6) urtean gutxienez, film luzearen kalifikaziotik aurrera zenbatuta.
 - b. Ikus-entzunezko lanaren titulartasunaren ehunekoak agerian eta modu proportzionalean lotuta egongo da euskal produkzio-etxe independenteak film luzearen ustiapenaren ondoriozko diru-sarreretan edukiko duen ehunekoarekin. Gehienez % 20ko desbideratzea onartuko da.
 - c. Produkzio-etxeak frogatu beharko du gutxienez film luzearen aurrekontuaren % 50 gastatu duela zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko. Gutxienez % 50 horren % 80 ICAAren aurrekontu-eredu ofizialaren 1., 2., 3., 4., 5. eta 6.01 kapituluetan egon behar da.
- 1.2. Euskal produkzio-etxe independenteak film luzearen titulartasunean daukan ehunekoak ez badio ematen haren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen % 25eko titulartasuna, gutxienez, baina daukan partaidetzaren zenbatekoa MILIOI BAT euro (1.000.000,00 €) baino gehiago bada eta zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko gastua BOSTEHUN MILA euro (500.000,00 €) baino gehiago bada, EITBren partaidetza eranskin honetan zehazten dena izango da.
- 1.3. EITBk honela gauzatuko du bere ekarpena: aurrez eskuratuz antena-eskubideak euskarazko emisio linealerako (bai lurreko telebista digitalaren estaldura-eremurako, bai, EITBren nazioarteko kanalen bidez, mundu osorako); komunikazio

eskubideak eskuratuz, izaera mugagabearekin, EITBren plataformen bitartez eskaintzeko, eta, era berean, film luzearen ustiapenaren portzentaje bat eskuratuz.

1.4. EITBk 1.3 atalean aipatzen diren komunikazio-eskubideak erosteko eskaintzen duena hitzarmenaren 2. eranskineko taulan biltzen da: *Ekarpen ekonomikoak komunikazio-eskubideak lagatzearen kontraprestazio gisa.*

1.5. Film luzeen ustiapenak sortzen dituen diru-sarrereren partaidetzaren baldintza ekonomikoak honako hauek izango dira:

- EITBk ustiapen-eskubideen % 31 edukiko du, film luze bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, gehienez 465.000,00 €.
- Ustiapen-eskubideen partaidetza hau gehitu ahal izango da, hain zuzen ere aurrekontuaren % 8, 120.000,00 € gehienez, jarraian azalduko diren irizpideak betetzen diren heinean eta kasu bakoitzerako ezarritako gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta:

1.5.1. Aplikazio-irizpideak:

A- Emakumeek produkzioan parte hartzea. Honako lanpostu hauetan aritzen den emakume bakoitzeko EITBk ekarpen bat egingo du (ez dira kontuan edukiko langintzan gizonekin batera ari direnak).

- Zuzendaria
- Gidoilaria
- Produktore exekutiboa eta musikagilea
- Musikagilea eta zerrendako burutzetako bi.
- Produktore exekutiboa eta zerrendako burutzetako bi.
- Honako talde burutza edo zuzendaritza hauetako bostetan emakumeak:
 - Argazki zuzendaria
 - Zuzendariaren lehen laguntzailea
 - Arte zuzendaria
 - Muntaketa burua
 - Soinu burua
 - Soinu-muntaketako burua
 - Nahasketen arduraduna
 - Produkzio zuzendaria
 - Efektu berezi fisikoen zuzendaria
 - Efektu berezi bisualen zuzendaria

Talde bakoitzaren arduradun nagusiengatik bakarrik aplikatuko da; gainera, ezinbestekoa da soldata lanpostuaren araberakoa izatea eta bat etortzea merkatuko parametroekin. Ekarpenean osagarria eragiten duen bakoitzaren lan-kontratua aurkeztu beharko da, edo bestela beraren interes-gutun formal eta loteslea.

B- Egile berria: Zinema-aretoetako ustiapen komertzialerako kalifikazioa lortutako film luze bat baino gehiago zuzendu edo zuzentzen lagundu ez duena.

C- Euskaldunen sormen-ekarpina (gidoia, zuzendaritza, argazki-zuzendaritza, musika eta muntaketa) % 55etik gorakoa izatea.

D- Euskal Herrian filmatzea. % 90 baino gehiago. Ehuneko horren % 80 gutxienez Euskadin izan behar da.

E- Nazioarteko komunikazio publikoaren eskubideak lagatzeko kontratuak.

Arlo honetan, EITBk 50.000,00 €-tik gorako nazioarteko komunikazio publikoaren eskubideak lagatzeko kontratuak baino ez ditu zenbatuko.

Baldin eta kontratazioa egiten denean EITBk kontratu bat sinatuta badauka nazioarteko koprodukzio bat egiteko, edo nazioarteko salmenta-agente batekin, produktoreak eskatu ahal izango du aldagarria betetzat emateko; aldez, filma estreinatzen denean zenbateko horretako salmenta-akordioa sinatu ez bada, estreinaldiaren eta aretoetako egonaldiaren fakturaren zenbatekoa kenduko da. Kenketa hori eginez gero, EITBren ehunekoa ez da txikituko.

Ez dira onartuko, eta ez dira zenbatuko, hirugarrenekin formalizatutako salmenten konturako aurrerakinak, interes-gutunak eta asmo-akordioak, baldin eta horien eraginez kontratuak formalizatzeko, indarrean jartzeko, lotesleak izateko edo eraginkorrak izateko ezinbestekoa baita zenbait irizpide edo baldintza betetzea.

Irizpideen araberako banaketa eta gehieneko zenbatekoak: aurrean aipatutako bost irizpideetako bakoitzagatik % 8aren % 20 ekarriko da, gehienez 24.000 euro.

1.5.2. Aldagarrien araberako gehieneko zenbatekoa:

Nolanahi ere, EITBren ekarpen gehigarriaren guztirako zenbatekoa (aldagarri guztien araberako ekarpenen batura) ez da izango 120.000 € baino gehiago film luze bakoitzeko.

1.6. Beste xedapen orokor batzuk

Film luzearen jabetza intelektualaren eskubideen banaketa dela-eta (euskal produkzio-etxeak eduki behar duen gutxienezko titulartasuna, % 25, barne) EITBk ez badauka ustiapen-eskubideen % 31, film luze bakoitzaren produkzio-

aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, daukan ehunekoarekin parte hartuko du.

EITBk beretzat gordetzen du honako hauek eskuratzeko lehenespeneko eskubidea: filmak gaztelaniaz eta Estatu Espainoleko gainerako hizkuntza ofizialetan linean, telebista-modalitate guztietan eta seinaleak igortzeko sistema guztien bidez, emateko antena-eskubideak (bai lurreko telebista digitalean, bai EITBren nazioarteko kanalen bidez mundu osoan) eta EITBren plataformen bitartez mugekin hedatzeko komunikazio-eskubideak.

2. Animazioko film luzeak, euskaraz jatorriz.

2.1. EITBk konpromisoa hartzen du interes-gutuna jasotako euskal produkzio-etxe independente batek bere kabuz edo batzuek elkarrekin ekoiztutako animazioko film luzeak, jatorrizko bertsoia euskaraz dutenak, finantzatzen laguntzeko, eranskin honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatuz gero. Horrez gainera, produkzio-etxeek honako betekizun hauek ere edukiko dituzte:

- a. Film luzea ustiatzeko eta merkaturatzeko behar diren jabetza intelektualaren eskubideen % 20 baino gehiago eduki behar dute, atzerriko partaidetza zenbatu gabe, jabetza intelektualaren gaineko legerian eskubide horiek eskualdatzeaz eta erabiltzeaz ezartzen dena gorabehera. Produkzio-etxeak eskubide horien % 20 eduki beharko du sei (6) urtean gutxienez, film luzearen kalifikaziotik aurrera zenbatuta.
- b. Ikus-entzunezko lanaren titulartasunaren ehunekoa agerian eta modu proportzionalan lotuta egongo da euskal produkzio-etxe independenteak film luzearen ustiapenaren ondoriozko diru-sarreretan edukiko duen ehunekoarekin. Gehienez % 20ko desbideratzea onartuko da.
- c. Produkzio-etxeak frogatu beharko du gutxienez film luzearen aurrekontuaren % 40 gastatu duela zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko. Gutxienez % 40 horren % 80 ICAAren aurrekontu-eredu ofizialaren 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8 kapituluetan egon behar da.

2.2. Euskal produkzio-etxe independenteak film luzearen titulartasunean daukan ehunekoak ez badio ematen haren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen

12
G

SEP

A

% 20ko titulartasuna, gutxienez, baina daukan partaidetzaren zenbatekoa MILIOI BAT euro (1.000.000,00 €) baino gehiago bada eta zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzailak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzekeo gastua BOSTEHUN MILA euro (500.000,00 €) baino gehiago bada, EITBren partaidetza eranskin honetan zehazten dena izango da.

- 2.3. EITBk honela gauzatuko du bere ekarpena: aurrez eskuratuz antena-eskubideak euskarazko emisio linealerako (bai lurreko telebista digitalaren estaldura-eremurako, bai, EITBren nazioarteko kanalen bidez, mundu osorako); komunikazio eskubideak eskuratuz, izaera mugagabearekin, EITBren plataformen bitartez eskaintzeko, eta, era berean, film luzearen ustiapenaren portzentaje bat eskuratuz
- 2.4. EITBk 2.3 atalean aipatzen diren komunikazio-eskubideak erosteko eskaintzen duena hitzarmenaren 2. eranskineko taulan biltzen da: *Ekarpen ekonomikoak komunikazio-eskubideak lagatzearen kontraprestazio gisa.*
- 2.5. Film luzeen ustiapenaren sortzen dituen diru-sarreraren partaidetzaren baldintza ekonomikoak honako hauek izango dira:
- i. EITBk ustiapen-eskubideen % 13 edukiko du, film luze bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, gehienez 243.750,00 €.
 - ii. Ustiapen-eskubideen partaidetza hau gehitu ahal izango da, hain zuzen ere aurrekontuaren % 6, 112.500 € gehienez, jarraian azalduko diren irizpideak betetzen diren heinean eta kasu bakoitzerako ezarritako gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta:

2.5.1. Aplikazio-irizpideak:

A- Emakumeek produkzioan parte hartzea. Honako lanpostu hauetan aritzen den emakume bakoitzeko EITBk ekarpen bat egingo du (ez dira kontuan edukiko langintzan gizonekin batera ari direnak).

- Zuzendaria
- Gidoilaria
- Produktore exekutiboa eta musikagilea
- Musikagilea eta zerrendako burutzetako bi.
- Produktore exekutiboa eta zerrendako burutzetako bi.
- Honako talde burutza edo zuzendaritza hauetako bostetan emakumeak:
 - Argazki zuzendaria

- Zuzendariaren lehen laguntzailea
- Arte zuzendaria
- Muntaketa burua
- Soinu burua
- Soinu-muntaketako burua
- Nahasketen arduraduna
- Produkzio zuzendaria
- Efektu berezi fisikoen zuzendaria
- Efektu berezi bisualen zuzendaria

Talde bakoitzaren arduradun nagusiengatik bakarrik aplikatuko da; gainera, ezinbestekoa da soldata lanpostuaren arabera izatea eta bat etortzea merkatuko parametroekin. Ekarpenean osagarria eragiten duen bakoitzaren lan-kontratua aurkeztu behar da, edo bestela beraren interes-gutun formal eta loteslea.

B- Egile berria: Zinema-aretoetako ustiapen komertzialerako kalifikazioa lortutako film luze bat baino gehiago zuzendu edo zuzentzen lagundu ez duena.

C- Euskaldunen sormen-ekarpenean (gidoia, zuzendaritza, argazki-zuzendaritza, musika eta muntaketa) % 50etik gorakoa izatea.

D- Euskal Herrian egitea. % 90 baino gehiago. Ehuneko horren % 80 gutxienez Euskadin izan behar da.

E- Nazioarteko komunikazio-eskubideak lagatzeko kontratuak.

Arlo honetan, EITBk 50.000,00 €-tik gorako nazioarteko komunikazio-eskubideak lagatzeko kontratuak baino ez ditu zenbatuko.

Baldin eta kontratazioa egiten denean EITBk kontratu bat sinatuta badauka nazioarteko koprodukzio bat egiteko, edo nazioarteko salmenta-agente batekin, produktoreak eskatu ahal izango du aldagarria betetzat emateko; aldiz, filma estreinatzen denean zenbateko horretako salmenta-akordioa sinatu ez bada, estreinaldiaren eta aretoetako egonaldiaren fakturaren zenbatekoa kenduko da. Kenketa hori eginez gero, EITBren ehunekoa ez da txikituko.

Ez dira onartuko, eta ez dira zenbatuko, hirugarrenekin formalizatutako salmenten konturako aurrerakinak, interes-gutunak eta asmo-akordioak, baldin eta horien eraginez kontratuak formalizatzeko, indarrean jartzeko, lotesleak izateko edo eraginkorrak izateko ezinbestekoa baita zenbait irizpide edo baldintza betetzea.

Irizpideen arabera banaketa eta gehieneko zenbatekoak: aurrean aipatutako bost irizpideetako bakoitzagatik % 6aren % 20 ekarriko da, gehienez 22.500 euro.

2.5.2. Aldagarrien arabera gehieneko zenbatekoa:

Nolanahi ere, EITBren ekarpen gehigarriaren guztirako zenbatekoa (aldagarri guztien araberako ekarpenen batura) ez da izango 112.500,00 € baino gehiago film luze bakoitzeko.

2.6. Beste xedapen orokor batzuk

- Film luzearen jabetza intelektualaren eskubideen banaketa dela-eta (euskal produkzio-etxeak eduki behar duen gutxieneko titulartasuna, % 20, barne) EITBk ez badauka ustiapen-eskubideen % 13, film luze bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, daukan ehunekoarekin parte hartuko du.
- EITBk beretzat gordetzen du honako hauek eskuratzeko lehenespeneko eskubidea: filmak gaztelaniaz eta Estatu Espainoleko gainerako hizkuntza ofizialetan linean, telebista-modalitate guztietan eta seinaleak igortzeko sistema guztien bidez, emateko antena-eskubideak (bai lurreko telebista digitalean, bai EITBren nazioarteko kanalen bidez mundu osoan) eta EITBren plataformen bitartez mugekin hedatzeko komunikazio-eskubideak.

3. Fikziozko film luzeak, gaztelaniaz jatorriz (irudi erreala eta animazioa).

3.1. EITBk konpromisoa hartzen du interes-gutuna jasotako euskal produkzio-etxe independente batek bere kabuz edo batzuek elkarrekin ekoiztutako fikziozko film luzeak (irudi erreala eta animazioa), jatorrizko bertsoia gaztelaniaz dutenak, finantzatzen laguntzeko, eranskin honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatuz gero. Horrez gainera, produkzio-etxeek honako betekizun hauek ere edukiko dituzte:

- a. Film luzea ustiatzeko eta merkaturatzeko behar diren jabetza intelektualaren eskubideen % 20 baino gehiago eduki behar dute, atzerriko partaidetza zenbatu gabe, jabetza intelektualaren gaineko legerian eskubide horiek eskualdatzeaz eta erabiltzeaz ezartzen dena gorabehera. Produkzio-etxeak eskubide horien % 20 eduki beharko du sei (6) urtean gutxienez, film luzearen kalifikaziotik aurrera zenbatuta.
- b. Ikus-entzunezko lanaren titulartasunaren ehunekoa agerian eta modu proportzionalan lotuta egongo da euskal produkzio-etxe independenteak film luzearen ustiapenaren ondoriozko diru-sarreretan edukiko duen ehunekoarekin. Gehienez % 20ko desbideratzea onartuko da.

- c. Produzio-etxeak frogatu beharko du gutxienez film luzearen aurrekontuaren % 25 gastatu duela zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko. Gutxienez % 25 horren % 80 ICAAren aurrekontu-eredu ofizialaren 1., 2., 3., 4., 5. eta 6.01 kapituluetan egon behar da.
- 3.2. Euskal produzio-etxe independenteak film luzearen titulartasunean daukan ehunekoak ez badio ematen haren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen % 20ko titulartasuna, gutxienez, baina daukan partaidetzaren zenbatekoa MILIOI BAT euro (1.000.000,00 €) baino gehiago bada eta zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko gastua BOSTEHUN MILA euro (500.000,00 €) baino gehiago bada, EITBren partaidetza eranskin honetan zehazten dena izango da.
- 3.3. EITBk honela gauzatuko du bere ekarpena: aurrez eskuratuz antena-eskubideak euskarazko eta gaztelaniazko emisio linealerako (bai lurreko telebista digitalaren estaldura-eremurako, bai, EITBren nazioarteko kanalen bidez, mundu osorako); euskarazko bertsioaren komunikazio eskubideak eskuratuz, izaera mugagabearekin, EITBren plataformen bitartez eskaintzeko, eta, era berean, film luzearen ustiapenaren portzentaje bat eskuratuz.
- 3.4. EITBk 3.3 atalean aipatzen diren komunikazio-eskubideak erosteko eskaintzen duena hitzarmenaren 2. eranskineko taulan biltzen da: *Ekarpen ekonomikoak komunikazio-eskubideak lagatzearen kontraprestazio gisa.*
- 3.5. Film luzeen ustiapenaren sortzen dituen diru-sarrereren partaidetzaren baldintza ekonomikoak honako hauek izango dira:
- EITBk ustiapen-eskubideen % 13 edukiko du, film luze bakoitzaren produzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, gehienez 243.750,00 €.
 - Ustiapen-eskubideen partaidetza hau gehitu ahal izango da, hain zuzen ere aurrekontuaren % 5, 93.750,00 € gehienez, jarraian azalduko diren irizpideak betetzen diren heinean eta kasu bakoitzerako ezarritako gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta:

MF

3.5.1. Aplikazio-irizpideak:

A- Emakumeek produkzioan parte hartzea. Honako lanpostu hauetan aritzen den emakume bakoitzeko EITBk ekarpen bat egingo du (ez dira kontuan edukiko langintzan gizonekin batera ari direnak).

- Zuzendaria
- Gidoilaria
- Produktore exekutiboa eta musikagilea
- Musikagilea eta zerrendako burutzetako bi.
- Produktore exekutiboa eta zerrendako burutzetako bi.
- Honako talde burutza edo zuzendaritza hauetako bostetan emakumeak:
 - Argazki zuzendaria
 - Zuzendariaren lehen laguntzailea
 - Arte zuzendaria
 - Muntaketa burua
 - Soinu burua
 - Soinu-muntaketako burua
 - Nahasketen arduraduna
 - Produkzio zuzendaria
 - Efektu berezi fisikoen zuzendaria
 - Efektu berezi bisualen zuzendaria

Talde bakoitzaren arduradun nagusiengatik bakarrik aplikatuko da; gainera, ezinbestekoa da soldata lanpostuaren araberakoa izatea eta bat etortzea merkatuko parametroekin. Ekarpene osagarria eragiten duen bakoitzaren lan-kontratua aurkeztu beharko da, edo bestela beraren interes-gutun formal eta loteslea.

B- Egile berria: Zinema-aretoetako ustiapen komertzialerako kalifikazioa lortutako film luze bat baino gehiago zuzendu edo zuzentzen lagundu ez duena.

C- Euskaldunen sormen-ekarpene (gidoia, zuzendaritza, argazki-zuzendaritza, musika eta muntaketa) % 30etik gorakoa izatea.

D- Euskal Herrian filmatzea. % 90 baino gehiago. Ehuneko horren % 80 gutxienez Euskadin izan behar da.

E- Nazioarteko komunikazio-eskubideak lagatzeko kontratuak.

Arlo honetan, EITBk 50.000,00 €-tik gorako nazioarteko komunikazio-eskubideak lagatzeko kontratuak baino ez ditu zenbatuko.

Baldin eta kontratazioa egiten denean EITBk kontratu bat sinatuta badauka nazioarteko koprodukzio bat egiteko, edo nazioarteko salmenta-agente batekin,

produktoreak eskatu ahal izango du aldagarria betetzat emateko; aldiz, filma estreinatzen denean zenbateko horretako salmenta-akordioa sinatu ez bada, estreinaldiaren eta aretoetako egonaldiaren fakturaren zenbatekoa kenduko da. Kenketa hori eginez gero, EITBren ehunekoa ez da txikituko.

Ez dira onartuko, eta ez dira zenbatuko, hirugarrenekin formalizatutako salmenten konturako aurrerakinak, interes-gutunak eta asmo-akordioak, baldin eta horien eraginez kontratuak formalizatzeko, indarrean jartzeko, lotesleak izateko edo eraginkorrak izateko ezinbestekoa baita zenbait irizpide edo baldintza betetzea.

Irizpideen araberako banaketa eta gehieneko zenbatekoak: aurrean aipatutako bost irizpideetako bakoitzagatik % 5aren % 20 ekarriko da, gehienez 18.750 euro.

3.5.2. Aldagarrien araberako gehieneko zenbatekoa:

Nolanahi ere, EITBren ekarpen gehigarriaren guztirako zenbatekoa (aldagarri guztien araberako ekarpenen batura) ez da izango 93.750,00 € baino gehiago film luze bakoitzeko.

3.6. Beste xedapen orokor batzuk

- Film luzearen jabetza intelektualaren eskubideen banaketa dela-eta (euskal produkzio-etxeak eduki behar duen gutxieneko titulartasuna, % 20, barne) EITBk ez badauka ustiapen-eskubideen % 13, film luze bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, daukan ehunekoarekin parte hartuko du.

af

20

4. Egile-dokumental zinematografiko luzeak.

4.1. EITBk konpromisoa hartzen du interes-gutuna jasotako euskal produkzio-etxe independente batek bere kabuz edo batzuek elkarrekin ekoiztutako egile-dokumental luzeak finantzatzen laguntzeko, eranskin honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatuz gero. Horrez gainera, produkzio-etxeek honako betekizun hauek ere edukiko dituzte:

- a. Film luzea ustiatzeko eta merkaturatzeko behar diren jabetza intelektualaren eskubideen % 20 baino gehiago eduki behar dute, atzerriko partaidetza zenbatu gabe, jabetza intelektualaren gaineko legerian eskubide horiek eskualdatzeaz eta erabiltzeaz ezartzen dena gorabehera. Produkzio-etxeak eskubide horien % 20 eduki beharko du sei (6) urtean gutxienez, film luzearen kalifikaziotik aurrera zenbatuta.
- b. Ikus-entzunezko lanaren titulartasunaren ehunekoa agerian eta modu proportzionalan lotuta egongo da euskal produkzio-etxe independenteak film luzearen ustiapenaren ondoriozko diru-sarreretan edukiko duen ehunekoarekin. Gehienez % 20ko desbideratzea onartuko da.
- c. Produkzio-etxeak frogatu beharko du gutxienez film luzearen aurrekontuaren % 25 gastatu duela zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko. Gutxienez % 25 horren % 80 ICAAren aurrekontu-eredu ofizialaren 1., 2., 3., 4., 5. eta 6.01 kapituluetan egon behar da.

4.2. EITBren ekarpena honela gauzatu da: aldeztatik erosi dituzten filmak linean emateko antena-eskubideak (bai lurreko telebista digitalan, bai EITBren nazioarteko kanalen bidez mundu osoan).

Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz bada, EITBk euskarazko bertsioaren antena-eskubideak eskuratuko ditu emisio linealerako (bai lurreko telebista digitalaren estaldura-eremurako, bai, EITBren nazioarteko kanalen bidez, mundu osoarako), eta euskarazko bertsioaren komunikazio eskubideak ere eskuratuko ditu, izaera mugagabearekin, EITBren plataformen bitartez eskaintzeko.

Horrez gainera, film luzearen ustiapenak sortzen dituen diru-sarreraren partaidetza bat ere eskuratuko du

4.3. EITBk 4.2 atalean aipatzen diren komunikazio-eskubideak erosteko eskaintzen duena hitzarmenaren 2. eranskineko taulan biltzen da: *Ekarpen ekonomikoak komunikazio-eskubideak lagatzearen kontraprestazio gisa.*

4.4. Film luzeen ustiapenaren sortzen dituen diru-sarreraren partaidetzaren baldintza ekonomikoak honako hauek izango dira:

- EITBk ustiapen-eskubideen % 13 edukiko du, film luze bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, gehienez 52.000,00 €.
- Ustiapen-eskubideen partaidetza hau gehitu ahal izango da, hain zuzen ere aurrekontuaren % 5, 20.000,00 € gehienez, jarraian azalduko diren irizpideak betetzen diren heinean eta kasu bakoitzerako ezarritako gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta:

4.4.1. Aplikazio-irizpideak:

A- Emakumeek produkzioan parte hartzea. Honako lanpostu hauetan aritzen den emakume bakoitzeko EITBk ekarpen bat egingo du (ez dira kontuan edukiko langintzan gizonekin batera ari direnak).

- Zuzendaria
- Gidoilaria
- Produktore exekutiboa eta musikagilea
- Musikagilea eta zerrendako burutzetako bi.
- Produktore exekutiboa eta zerrendako burutzetako bi.
- Honako talde burutza edo zuzendaritza hauetako lautan emakumeak:
 - Argazki zuzendaria
 - Zuzendariaren lehen laguntzailea
 - Arte zuzendaria
 - Muntaketa burua
 - Soinu burua
 - Soinu-muntaketako burua
 - Nahasketen arduraduna
 - Produkzio zuzendaria
 - Efektu berezi fisikoen zuzendaria
 - Efektu berezi bisualen zuzendaria

Talde bakoitzaren arduradun nagusiengatik bakarrik aplikatuko da; gainera, ezinbestekoa da soldata lanpostuaren araberakoa izatea eta bat etortzea merkatuko

MF 6

MD

X

parametroekin. Ekarpen osagarria eragiten duen bakoitzaren lan-kontratua aurkeztu beharko da, edo bestela beraren interes-gutun formal eta loteslea.

B- Egile berria: Zinema-aretoetako ustiapen komertzialerako kalifikazioa lortutako film luze bat baino gehiago zuzendu edo zuzentzen lagundu ez duena.

C- Euskaldunen sormen-ekarpena (gidoia, zuzendaritza, argazki-zuzendaritza, musika eta muntaketa) % 30etik gorakoa izatea.

D- Euskal Herrian filmatzea % 80 baino gehiago. Ehuneko horren % 80 gutxienez Euskadin izan behar da.

E- Nazioarteko komunikazio-eskubideak lagatzeko kontratuak.

Arlo honetan, EITBk 10.000,00 €-tik gorako nazioarteko komunikazio-eskubideak lagatzeko kontratuak baino ez ditu zenbatuko.

Baldin eta kontratazioa egiten denean EITBk kontratu bat sinatuta badauka nazioarteko koprodukzio bat egiteko, edo nazioarteko salmenta-agente batekin, produktoreak eskatu ahal izango du aldagarria betetzat emateko; aldiz, filma estreinatzen denean zenbateko horretako salmenta-akordioa sinatu ez bada, estreinaldiaren eta aretoetako egonaldiaren fakturaren zenbatekoa kenduko da. Kenketa hori eginez gero, EITBren ehunekoak ez da txikituko.

Ez dira onartuko, eta ez dira zenbatuko, hirugarrenekin formalizatutako salmenten konturako aurrerakinak, interes-gutunak eta asmo-akordioak, baldin eta horien eraginez kontratuak formalizatzeko, indarrean jartzeko, lotesleak izateko edo eraginkorrak izateko ezinbestekoa baita zenbait irizpide edo baldintza betetzea.

Irizpideen araberako banaketa eta gehieneko zenbatekoak: aurrean aipatutako bost irizpideetako bakoitzagatik % 5aren % 20 ekarriko da, gehienez 5.000 euro.

4.4.2. Aldagarrien araberako gehieneko zenbatekoa:

Nolanahi ere, EITBren ekarpen gehigarriaren guztirako zenbatekoa (aldagarri guztien araberako ekarpenen batura) ez da izango 20.000,00 € baino gehiago film luze bakoitzeko.

4.5. Beste xedapen orokor batzuk

- Film luzearen jabetza intelektualaren eskubideen banaketa dela-eta (euskal produkzio-etxeak eduki behar duen gutxieneko titulartasuna, % 20, barne) EITBk ez badauka ustiapen-eskubideen % 13, film luze bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, daukan ehunekoarekin parte hartuko du.

- EITBk beretzat gordetzen du honako hauek eskuratzeko lehenespeneko eskubidea: jatorrizkoa ez beste bertsio guztiak telebista-modalitate guztietan eta seinaleak igortzeko sistema guztien bidez emateko antena-eskubideak (bai lurreko telebista digitalean, bai EITBren nazioarteko kanalen bidez mundu osoan).

MF

5. Telebistarako sormen-dokumentalak.

- 5.1. EITBk konpromisoa hartzen du interes-gutuna jasotako euskal produkzio-etxe independente batek bere kabuz edo batzuek elkarrekin ekoiztutako telebistarako sormen-dokumentalak, 60 minutukoak gutxienez, finantzatzen laguntzeko, eranskin honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatuz gero. Horrez gainera, produkzio-etxeek honako betekizun hauek ere edukiko dituzte:
- Dokumentala ustiatzeko eta merkaturatzeko behar diren jabetza intelektualaren eskubideen % 20 baino gehiago eduki behar dute, atzerriko partaidetza zenbatu gabe, jabetza intelektualaren gaineko legerian eskubide horiek eskualdatzeaz eta erabiltzeaz ezartzen dena gorabehera. Produkzio-etxeak titulartasun hiru eduki beharko du sei (6) urtean gutxienez, dokumentalaren kalifikaziotik aurrera zenbatuta.
 - Ikus-entzunezko lanaren titulartasunaren ehunekoak agerian eta modu proportzionalan lotuta egongo da euskal produkzio-etxe independenteak dokumentalaren ustiapenaren ondoriozko diru-sarreretan edukiko duen ehunekoarekin. Gehienez % 20ko desbideratzea onartuko da.
 - Produkzio-etxeak frogatu beharko du gutxienez dokumentalaren aurrekontuaren % 25 gastatu duela zerga-egoitza Euskadin duten sortzaileak eta film luzea egiteko behar diren hornitzaile teknikoak, logistikoak, garraio-hornitzaileak, mantenu-hornitzaileak eta espazio-alokatzaileak, denak ere zerga-egoitza Euskadin dutenak, kontratatzeko. Gutxienez % 25 horren % 80 EITBren web orrian ageri den aurrekontu-ereduaren barruan egon behar da.
- 5.2. EITBren ekarpena honela gauzatuko da: aldeztatik erosiko ditu liburutegi-eskubideak (EITBren lurreko seinalea hedatzen den lurraldearen barruan dokumentalak, euskaraz eta gaztelaniaz, telebista-modalitate guztietan eta seinaleak igortzeko sistema guztien bidez, denbora-mugarik eta emanaldi-mugarik gabe, doako telebistan emateko komunikazio publikoaren eskubideak, eta EITBren nazioarteko kanalen bitartez mundu osoan emateko eskubideak), EITBren plataformen bitartez mugekin hedatzeko komunikazio-eskubideak, eta horrez gainera dokumentalen ustiapen-eskubideen partaidetza bat ere eskuratuko du.
- 5.3. Liburutegi-eskubideak erostearen baldintza ekonomikoak honako hauek izango dira:

- i. Euskal produkzio-etxe independenteei 10.000 euro ordainduko zaizkie liburutegi-eskubideengatik eta EITBren plataformen bitartez mugekin hedatzeko komunikazio-eskubideengatik. Erosketaren barruan sartzen da dokumentalaren bertsio bikoiztua.
- ii. Kopuru hori honela ordainduko da:
 - iii. % 50% filmatzen amaitu ondoren, materialak eman ondoren.
 - iv. % 50 materialak eman ondoko 90 egunen buruan. Ordainketa hau egiteko, aurretik dokumentalaren kostua aurkeztu beharko da, auditoretza egokia eginik.

EITBk dokumentalaren kostuaren auditoretzaren emaitzen arabera egingo du liburutegi-eskubideen erosketaren azken ordainketa; hain zuzen ere, kontratuan hitzartutakotik desbideratzerik gertatuz gero, kopurua zuzendu ahal izango du. EITBk auditoretzaren emaitzak kontuan edukiko ditu azken ordainketa egiteko; horren arabera ekarpena murriztea erabaki ahal izango du.

5.4. Dokumentalaren ustiapenak sortzen dituen diru-sarreraren partaidetzaren baldintza ekonomikoak honako hauek izango dira:

- v. EITBk ustiapen-eskubideen % 22 edukiko du, dokumental bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, gehienez 45.000,00 €.
- vi. Kopuru hori honela ordainduko da:
 - vii. % 25 kontratua sinatzen denean
 - viii. % 30 filmatzen hasten direnean
 - ix. % 20 filmatzen amaitutakoan
 - x. % 25 materialak emandakoan

5.5. Beste xedapen orokor batzuk

Aipatutako diru kopuruei zerga-karga aplikatu beharko zaie.

Dokumentalaren jabetza intelektualaren eskubideen banaketa dela-eta (euskal produkzio-etxeak eduki behar duen gutxieneko titulartasuna, % 20, barne) EITBk ez badauka ustiapen-eskubideen % 22, dokumental bakoitzaren produkzio-aurrekontuaren Espainiako zatiaren gainean, daukan ehunekoarekin parte hartuko du.

NA

6. Film laburrak

- 6.1. EITBk honako film labur hauek euskaraz edota gaztelaniaz emateko eskubideak erosiko ditu: Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen dutenak; KIMUAK katalogorako hautatuta egonik, euskal enpresak produzitu eta euskal egileek zuzendutakoak.

Halaber, EITBk honako film labur hauek euskaraz edota gaztelaniaz emateko eskubideak ere erosiko ditu: euskal produkzio-etxe independenteez produzitutakoak, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak ez bete arren, EITBren proiektua baloratzeko batzordeak erabakiz gero.

- 6.2. Film labur bat 3 urtez 3 aldiz modu linealean emateko eta EITBren plataformetan mugarik gabe emateko lizentziaren gutxieneko prezioa honako hau izango da:

- 175 euro minutuko, 2.625 euro gehienez
- Film laburra fikziozkoa eta irudi errealekoa bada, eta euskaraz filmatu bada, gutxieneko prezioa honako hau izango da: 230 euro minutuko, 3.500 euro gehienez

- 6.3. Lizentzia hori ordaintzeko, ezinbestekoa da film laburra EITBn estreinatzea. Dagoeneko telebistan estreinatuta badago, lizentziaren prezioa % 25 murriztuko da.

- 6.4. Kasu guztietan, hitzartutako diru kopurua materialak eman ondoren ordainduko da, dena batera.

- 6.5. Gainera, prima gehigarria ordainduko da kasu hauetan:

- Film laburrak saria lortu badu Locarno, Cannes, Venezia edo Clermont Ferrand-eko jaialdietan (1.500€).
- Oscar sarietarako izendapena jaso badu (3.000€).
- Goya sarietarako izendapena jaso badu (1.500€).

- 6.6. Aipatutako diru kopuruei zerga-karga aplikatu beharko zaie.

PUBLIZITATEA EITB-REN HEDABIDEETAN

1. Aurreko 1 - 4 ataletan aipatzen diren ekarpenez gainera, eta film luzeei dagokienez soilik, film bat Euskadiko zinema-aretoetan estreinatzearekin batera EITBk haren publizitatea egingo du bere hedabideetan (telebista, irratia eta internet). Jarraian publizitate horren balioa eta baldintzak azalduko dira:

	PUBLIZITATEA
FIKZIOA, GAZTELANIAZ (irudi erreala edo animazioa)	33.000
FIKZIOA, EUSKARAZ	50.000
ANIMAZIOA, EUSKARAZ	50.000
EGILE--DOKUMENTAL LUZEA	15.000

2. Hitzartutako publizitate-espazioei EITBren unean uneko tarifa ofizialak aplikatuko zaizkie, eta tarifa horietan honako deskontu hauek aplikatuko dira:

- Telebista:

- Tarifa ofizialaren % 80.
- Kate-mixa, gaztelaniaz (DT – Day Time): % 50 ETB1 eta % 50 ETB2.
- Kate-mixa, gaztelaniaz (PT – Prime Time): % 35 ETB1 eta % 65 ETB2.
- Kate-mixa, euskaraz (DT – Day Time): % 75 ETB1 eta % 25 ETB2.
- Kate-mixa, euskaraz (PT – Prime Time): % 30 ETB1 eta % 70 ETB2.

- Irratia

- % 65eko deskontua.

- Internet:

- % 50eko deskontua.

DT-PT mixaren konpromisoa beteko bada, ezinbestekoa da EITBk ez edukitzea publizitate-saturaziorik ikus-entzunezko lanaren promozio-kanpaina egiten denean. Publizitate-saturazioa aldikakoa izan ohi da: urtarrileko lehen hamabost (15) egunak, uztaila eta urteko azken hiruhilekoa.

3. Euskal produkzio-etxe independenteak jarraian azalduko den materiala eman beharko dio EITBk izendatutako pertsonari kanpaina hasi baino astebete lehenago gutxienez:

MF

[Signature]

[Signature]

[Signature]

- 2 spot, EITBren unean uneko indarreko arau teknikoen arabera eginak, 20 segundokoak, euskaraz eta gaztelaniaz.
 - 2 irrati-tarte, 20 segundokoak, euskaraz eta gaztelaniaz.
 - Publizitatea EITB taldearen web orrietan sartzeko behar diren elementu grafikoak, euskaraz eta gaztelaniaz, indarreko arau teknikoen edo estandarren arabekoak.
4. Espazioa ikus-entzunezko lanaren publizitatea egiteko erabiliko da aretoetan ustiatzen ari den bitartean. Ikus-entzunezko lana zinema-aretoetan emateko aldia amaitutakoan ulertuko da euskal produkzio-etxe independenteak agortu duela publizitate-espazioa, benetan erabili duen ala ez kontuan hartu gabe. Orobat, publizitatea agortutzat joko da honako kasu hauetan ere: euskal produkzio-etxe independenteak hilabete lehenago jakinarazten ez badu noiz estreinatuko den lana zinema-aretoetan, hau da, noiz hasi behar den publizitate-kanpaina; aurrean zehaztutako materiala behar bezala ematen ez badu.
5. EITBk aurrean adierazi den prezioan fakturatuko dio publizitate-espazioa euskal produkzio-etxe independenteari. Euskal produkzio-etxe independenteak publizitate-kanpaina amaitzen denetik hamabost (15) egun igaro baino lehen ordainduko du faktura.
6. Euskal produkzio-etxe independenteak publizitate-kanpaina abian jartzen denean bidaliko dio faktura EITBri, eta honek jasotzen duenetik hogeita hamar (30) egun igaro baino lehen ordaindu beharko du.

LABURPEN-TAULA: USTIAPEN-ESKUBIDEEN LAGAPENAREN ARABERAKO EKARPENAK ETA PUBLIZITATEA

	FINKOA		ALDAGARRIA		PUBLIZITATEA
	%	ZENBATEKOA, GEHIENEZ	%	ZENBATEKOA, GEHIENEZ	
FIKZIOA, GAZTELANIAZ (irudi erreala edo animazioa)	% 13	243.750	% 5	93.750	33.000
FIKZIOA, EUSKARAZ	% 31	465.000	% 8	120.000	50.000
ANIMAZIOA, EUSKARAZ	% 13	243.750	% 6	112.500	50.000
EGILE--DOKUMENTAL LUZEA	% 13	52.000	% 5	20.000	15.000

Handwritten signatures in blue ink at the bottom of the page.



Faint, illegible text or markings in a rectangular box near the top of the page.

G

II. ERANSKINA

Taula: I. eranskinean azaltzen diren komunikazio-eskubideen lagapenaren araberako ekarpen ekonomikoak

A) Fikziozko film luzeak (irudi erreala eta animazioa), gaztelaniaz jatorriz

Aurrekontua	gaztelaniazko bertsioa + euskarazko bertsioa
Filmaren aurrekontua \leq 600.000 euro	42.000 euro
600.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 1.000.000 euro	70.000 euro
1.000.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 1.500.000 euro	75.000 euro
1.500.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 2.000.000 euro	80.000 euro
Filmaren aurrekontua > 2.000.000 euro	95.000 euro

B) Egile-dokumental zinematografiko luzeak.

Aurrekontua	Jatorrizko bertsioa	Jatorrizko bert. + Bertsio bikoiztua
Filmaren aurrekontua \leq 300.000 euro	20.000 euro	30.000 euro
Filmaren aurrekontua > 300.000 euro	25.000 euro	35.000 euro

C) Fikziozko film luzeak, euskaraz jatorriz.

Aurrekontua	Euskarazko bertsioa	Euskarazko b. + Gaztelaniazkoa
Filmaren aurrekontua \leq 600.000 euro	39.000 euro	54.000 euro
600.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 1.000.000 euro	65.000 euro	85.000 euro
1.000.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 1.500.000 euro	70.000 euro	90.000 euro
1.500.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 2.000.000 euro	75.000 euro	95.000 euro
Filmaren aurrekontua > 2.000.000 euro	80.000 euro	100.000 euro

D) Animazioko film luzeak, euskaraz jatorriz.

Aurrekontua	Euskarazko bertsioa	Euskarazko b. + Gaztelaniazkoa
Filmaren aurrekontua \leq 600.000 euro	39.000 euro	54.000 euro
600.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 1.000.000 euro	65.000 euro	85.000 euro
1.000.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 1.500.000 euro	70.000 euro	90.000 euro
1.500.000 euro < Filmaren aurrekontua \leq 2.000.000 euro	75.000 euro	95.000 euro
Filmaren aurrekontua > 2.000.000 euro	80.000 euro	100.000 euro